

EGAN



1-4

1953

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

SUMARIO

A. Irigarai: Piarres de Axular.

Etxaniz'tar Nemesio: Ezten atzokoa.
—Illunabarra.—Nork daki?—Arroputz.
—Kittarra.—Dela.—Ain urruti ta ain
urbil.—Ekaitza.—Gizona.—Gogo-ami-
lla.—Maitasunari gorroto.

Lizardi'tar Xabier: Ezkondu ezin zite-
ken mutilla.

Euskaltzaindi-ko Z'garren Solas-aldia

A. IRIGARAI

Piarres de Axular

Piarres de AXULAR. Nork ez du ezagun adituz bederen gizon aipatu au? Deus guti berririk esan dezakegu beraz, yadanik csana eta birresana eztenik, bai bere bizitzaz eta bai GVERO bere liburuaz ere.

Baiñan oriek denakatik ala ere esker lukeela iduri zaigu zerbait idazlari ortaz emen aipatzea eta aren mintzo kilikorra yastatzera ematea. Eta aitor dut atsegiñez ari naizela, abantxu ene erritarra zelakotz gure izkiribatzaile andia: Urdazubi-ko lurra Baztango dermioen barrenean delako eta lehenagoko demboretan ere Baztango egiten zen txoilki.

Pero de AXULAR Nafarroan sortu zen, Urdazubi-ko (Urdax) errian, 1556 urtean. Bere gurasoak Piarres Axular eta Maria Azpilicueta ziren (S. Frantses Xabierre-koaren amaren izen berekoa). Bere izen bera daraman sortetxea oraiño xut dago, baiñan berritua, leengoaren tokian.

Gutti dakigu ahatik bere gaztaroaz: ezen 40 urte beteak bazituen apez ordenatu izan zeneko Tarbes-en. Iruñeko Apezgai-tegian eta Leridan ere egin zituela bere ikastaroak badakigu. Baiñan zer aritu zen 40 urte artio? Edo zerbait traba ezkutu ba-zena bere bidean?

Garai ayetan beretan Euskalerrri-an eta bereziki bere erri inguruko lurretan, ikaragarritzko zorigaitzak gertatzen ziran: Akelarre batzarretara elemeniaka zoazin aldi artan jendeak, eta orduan gertatu ziran Pierre de Lancre (Agerre izenekoa, damuz) epaikari zela, sorgin doakabeen erretze deitoragarriak.

Eta ayen artean, suan bizirik erretakoen izenetan kausitzen ditugu iru apezten izenak: bi zahar, *Argibel* eta *Migelena*, Azkainen erreak, eta *Bocal*, Ziburu-ko erretora, 27 urtetakoa.

Eta orai galde bat, beti erantzupenik gabe nere buruan gelditu dena: Zergatik ez du Axularrek bere liburuan sorginkeriaz itzik aipatzen? Bekatu aundi bat izanik eta orduko Euskalerrri-an asko edatua?

Beñipein herrian sorginkerizko ipuiñ bat kontatzen da Axularrez. Salamanca-n ikasten egon zela deabruak leize batean zeukan Eskolan: ikasleetatik bat beretzen omen zuen deabruak urtero.

Axularrek urte artan erabaki omen zuen lerroaren azken tokian bera geldituko zela. Baiñan eguerdian ateratu behar ziralako baldintzarekin: ikasleak lerroan leizetik kanpora badoazi, deabrua ate-zain.

Denek txandaka esaten dute "Ar-zak ene ondokoa", eta Axularrek ere bardin: deabrua orduan kobaren paretan eguzkiak egiten zuen aren itzalaren gainera bota zen, Axular libre joan, baiñan itzalik gabe gelditu, omen.

Dena den, ipuiñak aski argi adi-arazten du Axularren izenaren eta ospaeren edadura. Bere biographia baten faltan arkitzen gara eta arrigarrizkoa da euskalzaleen axolagabekeria gere goyeneko gizonekin.

Sara-n il zen 1644 gn. urtean, apirillean; eta ango Elizan den ilarrian irakurtzen ahal ditugu Bonaparte Prinzeak ipuiñ arazi zituen itzak: "Pedro Axular euskaldun izcribatzalletatic iztun ederrenari, ni "Luis Luziano Bonaparte euskarazaleak au ipini nion. Ez dago atse"denik ta odei gabe egunik, zeruetan baizik. 1865."

Norbaitek miretsiko du Bonapartek Sara-n, eta Axular bateri, giputz-euskaran izkiria-araztea, Bonaparte prinzeak Literatur-euskaren eztabaian, Gipuzkoa-kora lerratzen dela ematen du, bere idazkitan.

Sara-ko erretorgoaz auzia piztu ziotenean, Espainiako zelakoaren estakuruaz, Daranatz kalonjeak kondatzen du (Curiosités du Pays basque) joan zela gure gizona zaldiz Paris-era Henry IV'garren errege ope andiko arekin mintzatzeraz.

Eta Erregeak berak Lettres de naissance direlakoak fransesez bidali zizkion, auxe adi araziz: "Nafarroa-ko Erresumakoak nere mene"ko baititut eta baitira, nai dugu eta agintzen dugu, Axularrek ukan"eta goza dezala Sarako erretorgoa, sortzez Nafarroa-goitikoa dela"beste kontrarik ez paldin badu... Parisen, 1601 garren urtean."

Dokument au gordetzen da Orreaga-ko Monasterioan.

Axularren laudoriotan mintzo diran guztiak aipatzeko ezdugu astirik. Utziko ditugu mendiz bestaldekoen gorapenak (Yoanes d'Etcheberri, Intxauspe, Piarres Lafitte, Otsobi, etc.) eta asi gaitezen esaten, bizi zen demborako yardanik, bere izena eta ospea aunitz edatua zagoela, ezen bere liburuaeren Censuran Salvatus de Dissaneche-k dio: "...Domino Pedro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper Rectori da Sara..."

Gure Larramendi idazlari trebeak goyeneko laudorioen artean aipatzen du Axular: bere *Corografía de Guipúzcoa* liburu xarmagarrrian erakusgarri bezala Axularren zati bat dakarra. Eta bere Iztegiaren aitzin solasean *Guero* liburuaz Larramendik dio:

"Un tomo en 8.^o del célebre Pedro de Axular... El bascuence es "elegante, propio, puro, abundantísimo: el asunto tratado por principios, probado por la sagrada escritura, padres de la Iglesia, ejemplos y semejanzas muy oportunas.

"Los vicios pintados al natural y convenientísimos sus remedios. "Anda en manos de muchos, y debiera en las de todos los vascongados y ojalá hubiera dado a luz la 2.^a parte que ofrece al principio al lector. Está impreso en Burdeos, año 1642." (Zuzenki 1643 da.)

Eta *Corografía* berean badio Larramendik: "...en Labort se han dedicado más que en ninguna parte a hablar y escribir en vascuence y a predicar la palabra de Dios con toda decencia, limpieza y eficacia."

Eta au dudarik gabe Axularren *Guero* liburuari zor zaio geyenik bere yarraizaleak izan zirelako Pouvreau, Materre, Oihenart, Harizmendi, Tartas, Darambillaga, Gasteluzar. Oraino ere bere maisugoa ez da itzali idazlarietan.

Huna orai Mikolas Ormaetxea idazlari aipatuaren iritzia: "Peru "Axular duzu aurki euskal idazlerik bikaiñena oraintsudaino... Daturmurik ez dugu ikusiko nai bezain laister GERO-ren ekoizpen edo edizione berria! Axular bezalako idazle asko izan balitu euskarak dagon baino landuagoa zegoen onezkero."

Tartetan esango dugu oraintsu ari dirala euskararen adiskide batzu *Gero*-liburuaren edizione berria argitaratzekotan: Axularren mintzoa itzez itz, baiñan oraiko graphian emana.

Orixek Axularren tankeraz eta estiloaz mintzo denean dio: "Axularren asmoa, burutapena [pensemendua] den bezala ta argi agertzea da, ta ez dioa igesi beste asko bezala buruan daukana adieraztetik.

"Asko ta asko gaur ere erderaren igesi dijoazela, burutapenaren igesi dabilta. Ala ere Axularrek euskal itz eder ugari ba du, Mendiburuk baino ugarigo." Orixek azaltzen duen goganbehar eta ertsitasan ori oraino ere nabari da zorigaitzez, idazlari geyenetan.

Laudorioetan gelditu nadin badaritzat, ezen gogan behartzen naiz erdi asperturik zaudeztela eta Axular beraren mintzo ederra ere aditzeko gutiziatuak eta berantetsiak. Gure autore unen liburuak iru edizione izan ditu; lehenbizikoa 1643garren urtean, egilleak behar bada ez ikusia, 1644 urtean hila baizen.

Bigarrena estalirik edo ixilpean agerturik, urtea markatzen ez duela: textoan itzez itz lehenbizikoa bezala delarik, azalean bere

izen burua bestela agertzen zaigu; *Guero* *guero*. Ez da jakiten ziurki baiñan uste da 40 urte edo ala geroago agertu zeia bigarren edizioen au, nurbait lehenbizikoaren arrakasta bete baten ondorioz: lehenbizikoaz iyeki gutti gelditu eta aldez bigarrenekoaz aunitz geyago, naiz orai urri diran azken auek ere, eta sañneurri goretara eltzen.

Irugarren edizioea 1864 urtekoa da, Inchauspe idazlariak argitara emana: ekoizpen unek eztu ambat balio, ezen editoreak Axularren mintzoa uldatu du eta batzuetan zati osoak ixiltzen ere, dituen gordinkeri batzuen aitzakiaz.

Liburuaren izen buru propioa auxe da; "*GUERO*, bi partetan partitua eta berezia, lehenbizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luçamendutan ibiltzeak, eguitecoen gueroa uzteac, bigarrenean quidatzen... Bordelen 1643."

Axularren liburuak irurogei kapitulu edo buruxka ditu. 600-en bat orrialdetako mintzo yori, eder, aberats eta yostakin batean; ainheteraño, non toki askotan idazlariaren solasen ezitasunean pulmpatzen gareala, guiaren aria galtzen dugun.

Ikusazue: Josepho idazlaria'ren *De Antiquitate* liburutik artuz *GUERO* liburuan irakurtzen da: "Cyro Emperadore handi hura ain itsutu eta ergeldu zuen Apama bere amoranteak, non hartaz nai zuen guztia egiten baitzuen. Alde batetik eta bertetik beharrondoka hari zeikan: batean bizarra, bertean beharriak tiratzen zerautzan: haur batekin bezala harekin dostatzen zen. Eta guztietan Emperadore eroa ortzak irriturik, irriz beha zegokan: miraillean bezala hartan miratzen zen, haren alegeratzeaz alegeratzen zen eta tristetzeaz tristetzen. Eta emazte gaixtoak batzutan bere burua berariaz, haserre iduri egiten zuen: eta orduan Emperadore zoroak ahal ziren asmuak eta enseiua balakatzeko eta baketzeko egiten zituen. Amorantea zen nabusi, no zen to, emaztea gizon, oilloa oillar. (No zen to esakera giñartsuari ohartu; emea no arra to itzekin adiaraziz). Erran behar da esku handia hartzen duela emazteak amurus itsutuaren gainean, halako Emperadore bat, ema ezteus batek hala errendatzen duenean." Hunaraño Axular.

Alferkeriaz, damuaren geroko uzteaz, lainkoaren urrikalmenduaz, erremusinaz (limosnaz esan nai du) eta justiziaz mintzo zaigu liburuan, mintzo zaigu, biraoaz edo burroaz, gorrotoaz eta etsaigoaz, lizunkeriaz, Ifernuaz, etc., eta bekatu oyen erremediatzeko artu behar diran bideetaz, beti gizonki, argi eta garbi elekatzen da Axular, giza-arteko bizitza arrontetan artu litezken konseilluak emanez, eta aipatu gabe, posible ez tiran neurriak: oriek denak greko eta erromano, eta Elizako autore ospetsueneren gogoeta eta kontakizunekin onrituz.

Una zorraz eta justiziaz nola mintzo den:

"Betzuek bekatu ba-daritzate ere gauza ebatsien pagatu gabe edukitzea, ez ordea ezdaritzate bekatu zor jakinari eta aitortuari luzatzea... Zeren baldin zerorrek bizi zarela, zeure arimaz orai konturik egiten ezpaduzu, eta zeure egin duzun falta, zeure erremediatzen ezpaduzu, eztezazula pensa, ezta kizula iduri, gero zure ondotik, zure ondokoak, zuk zerorrek baiño obeki eginen duela... Bat dugunean, bia nahi ditugu, bia ditugunean, hirur. Ongi edo gaizki, zuzen edo makur, plazer zaiku hartzea eta berretzea, baiña gaitz eta gaitzi, gutitzea eta bihurtzea: hartan min hartzen da.

"Bada min hartuko bada ere, bihurtu behar da, satisfatu behar da. Eta hobe da batekin zozzin parabisura, hamarrekin infernura baiño. Eta hobe da halaber utz diazozun zeure umeari edo ondo-koari guti eta on, ezen ez anitz eta gaixto." Unaraiño Axular.

Zembeit tokitan yoskera artezema etzela esan ditake, gramatikariek onestekoa: hau ezin ukatzuko egia da: han emen, latin edo erdara-ren sintaxis usaiñeko hiperbaton eta esakerak kausitzen ditugu: aitortu behar da ori. Baiñan esan ere behar da gramatikariek batzutan zorrotzegi beren erreglak eramaten dituztela, esakunaren zentzu illundu arteraiño eta garazia gal-araziz.

Ezen aipu andiko erdal idazlari batek (Barojak) idatz-estiloaz mintzo denean dio: "Hay incorrecciones que se aceptan, porque son más cómodas y expresivas, cuando estas irregularidades son una forma popular."

"*Flaubert* en su Correspondencia se extraña de que los grandes escritores no hayan sabido escribir. Así, Cervantes, Walter Scott, Balzac, Dickens, Dostoiowski, han sido considerados como escritores incorrectos. La perfección, cierta clase de perfección en el estilo, aburre."

Euskera-ren jatortasunari, minbera izan zen ere Axular, naiz ez iduri, eta bai Literatur-izkera delako gorapillo orrendako ere.

Bere izkerak beste euskeratatik ere baditu eta giputz-eratik ez gutti. Lapurtar alderdikaria zenik, ezin da esan; berez, nafarra zen. Ara zer dion bere lehenbiziko itzetan *Irakurtzailleari*: "Egun batez, kompañia on batean, euskaldunik baizen etzen lekuan nengoela, ekarri zuen solasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako eta ez gorputzeko ere nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biarretik biarrera luzatzeak.

"Eta on zaitekela gauza hunetaz, liburu baten euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan, gero dioenak *bego* dioela erakustea. Kompañia berean galdegin zen berehala ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua.

"Eta bertze guztien artetik hasi zeizkidan niri neroni aditzera

"emaiten, lehenbizian keiñuz eta ayeruz eta gero azkenean klarki eta "agerriz nik behar nituela egiteko hartan eskuak sartu..."

Eta idazteko moldeaz dio:

"Badakit halaber ezin heda naitekeyela euskarako mintzatze molde guztietara. Zeren anitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira "Euskalherrian.

"Nafarroa-garayan, Nafarroa behean, Zuberoan, Lapurdin, Bizkayan, Gipuzkoan, Alaba-herrian eta bertze anitz lekutan, batak erraiten du behatzea eta bertzeak so-egitea. Batak haserretzea eta bertzeak samurtzea. Batak ilkitzea, bertzeak itagitea. Batak atea, bertzeak borta. Batak erraitza, bertzeak esatea. Batak irakurtzea, bertzeak leitza. Batak itskartzea, bertzeak ahakartzea. Batak hauzoa, bertzeak barridea. Batak altonen semea, bertzeak zalduna... Baiña zeren komunzki hala iskiribatzea nola mintzatzea nori berea iduritzen baitzaika hoberenik eta ederrenik. Eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez otoi hargatik arbuya eta ez gaitz erran.

"Hunetaz kontent ezpazara egizu zuk zeure moldera eta zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Zeren ez naiz ni hargatik bekaiztuko eta ez muturturik gaitzez jarriko.

"Aitzitik, haur da nik nahi nukeyen gauzetarik bat, ene enseyu apur hunek kilika zintzan eta gutizia bertze enseyu hobeago baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera.

"Zeren halatan ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez heretsi nola munduak uste baitu eta baitaduka, dela. Orai badirudi euskarak, ahalke dela, arrotz dela, eztela iend-artearen ausart, erregu, bitore eta ez trebe.

"Zeren are bere herrikoen artean ere ezpaitakite batzuek nola eskiriba eta ez nola irakur. Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, franzesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz hek bezain aberats eta komplitu izanen zen euskara ere eta baldin hala ezpada euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak."

Eta euskera-ra itzulikatzeko oldeaz eta moldeaz dio:

"Ez eta eztitut beti ere eskritura saindua eta doktoren erranak ere hitzez hitz euskara-ra bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hizkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoago dela euskara.

"Aitzitik badirudi ezen bertze hizkuntza eta lengoaya komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla, baiña euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela." Unaraiño Axular.

Nafar idazlariak metaphorak erabiltzen ditu, baiña ororen gaiñetik sinonimiak: iru lau izen lerroan ematen ditu gauza bat adiarazteko; izen orietatik asko erdaratik direala aitortu dezagun lañoki.

Baiña itz mordollo oriek barkakizun direala deritzait Axularren liburuaren errestasuna eta atsegia orretatik eldu delako; irakurzaille bakoitzak atxematen duelako beti bere belarriak ezaguna duen izena edo itza: eta, banago etzueneguz apropos egin Axularrek. Erdaratikako itzen ondoan beti aurkitzen dugulakotz itz garbia, eta bai ulerkaitza ere, ayen laguntza ezpaltiz. Una Axular: "Nola ardia otsoaren" ikusteaz, lazten, larritzen, asaldutzen, izitzen eta ikarutzen baita: "hala egiten gara gu ere etsaiarekin batzeaz eta incontratzeaz."

Hiperbaton eta erdakeri zenbeiten ondoan berriz zer aberastasuna hitz jatorretan eta zenbat esakera garbi eta lerdan! Arrazoiekin dio bai IBAR gipuzkoar idazlariak bere *Genio y lengua* liburuxkan: "¡Libro profundamente humano y genuinamente vasco... Libro de oro... sin embargo... puede muy bien arrastrar escoria de voces y hasta "construcciones erdéricas en cantidad bastante para defraudar a un "observador superficial."

Gero liburua humanista bete baten, (gizatiar baten, esate baterako) kumea da. Garai ayetan, aro eta sasoi orretan ziren, greko eta erromanoen idurira izkiribatzen zuten, eta Axularren liburutik *gizatasuna* dario alde guztietarik.

Montaigne, Fr. Luis de Granada, Bossuet ere humanistak ziren, baiñan laister gero aintzineko autoreen imitazioe ori krjtkatua izan zen, Boileau-ren "*Querelle des anciens et des modernes*" delakoaren garaian.

Axularrek oraiño klasikoak imitatzen ditu, eta idazlari ayen eder-gailuak onesten, eta ayen birtuteak laudorioz aipatzen, pagano-enak izanik ere, Renacimiento-aro edo Berpizkunde-aro delakoaren seme egiazko batek bezala.

Idiki dezagun berriz *Guero* liburua eta ikus 43-garren kapituluari: "Therenziok dion bezala, Sine Cerere et Bacho friget Venus: Ogi-rik eta arnorik ezten lekuan hotz da Venus: ezta han amurusiarik" eta ez emazte gutziarik.

"Lehenago, Erromako emazteak etzuten bat ere arnorik edaten. "(Alexandro lib. 2). Bertzerentzat ere sobera edatea itsusi da, baiña "emazteentzat are itsusiago eta perilosago.

"Handik uste dut etorri zela usantza, arrotz-kalean kanpotik etortzean, gizonak emazteei pot egitea, musu ematea, jakiteko ea arno "usaiñik bazutenz...

"Ohoiñ bat, jokari bat, arnegari bat, putaner bat, gaixto da, ordea gizon da; bere adimenduan dago, zerbaitetako gai da. Baiña "hordia, ardankoaia, abre da, ezta gizon. Zeren gizon izaitea, adimenduan egoitea da, arrazoinaz usatzea.

"Beraz hordia hordi deino, ezta gizon. Orduan ez paitago adimenduan: ezpaita orduan abre baiña geiago arrazoinaz baliatzen.

"Eta hala gizonak bere gizontasunean ezin duke falta handiagorik
"eta ez desohore desohora-garriagorik (munduak hala ezpadauka ere)
"horditzea, adimenduaren nahastea eta fama hartan jartzea baiño."
Unaraiño Axular.

Ez du barroco tankeraren kutsurik, ez eta aren geyegizko iduri-
penak eta lore izketak, Apologoak eta hiperbaton direlako yoskerak
usatzen ditu alabaiñan. Urkijok aipatu zuen Fr. Luis de Granadaren
liburuetatik ustez arturikako Axularren zati bat.

Baditake ala den, baiña gaia berdiña duten kapituluetan ikus-
katzen ba da eta berdinkarutzen, agitz desberdin kausituko dira bi
liburuak, *Guero* eta *Guía de Pecadores*. Axular barnakorrago da eta
mamitsuagoa, giza-semeendako bederik.

Granada, lirismotara egaldatzen da, eta emakumezkoendako ego-
ki diran irudipenak manayatzten, mutilla da idazlari aundi ori. Si-
ñestean eta fedean duda izpirik ez dutenei mintzo da Granada.

Siñeste epel dutenek herriz, laketuko dute Axular: au guztienda-
ko mintzo da. Axular 100 urte gazteago izanik, ez da barroco tan-
kerara ixurtzen.

Ez ta preziosista, sotilkeri-zalea, ez ta retorikalaria, baiñan esa-
kun luzeak eta hitzak ederriaz autatzea maite du.

Gure idazlariaren liburuan ez dugu itz alferrik kausituko. Eta lo-
re faunak ez izanagatik GVERO liburuan, izkera loreztatua ba dugu,
iztun eta oratorio estilokoa. Alde eta bide aundia dago Granada-ren
Guía de Pecadores edo *Oración y meditación* liburuetatik Axular-
enera: eta Urkijok atxematen duen "*el indudable parecido*", toki ba-
tzuetan edirenen da eta "*parentesco a través de un modelo común*"
ere izatea ba ditake, berak dion bezala. Urkijok berak dio "*Una fuente
del GVERO*" irakurgaiari; "*Está probado que Shakespeare imitó a los
"antiguos, Fr. Luis de León a Horacio, Góngora a Virgilio, Virgilio
"a Homero, etc."*

Cotys, Trazia-ko erregearen baxera baliotsuaren ipuiña kontatzen
du Axularrek, bere *Essais* liburu famatuan Montaigne-k egiten duen
gisan: eta *Marcial*-ek *Postumus* bateri usaiñ onaz diotsona: "*Pos-
"thume non bene olet qui semper bene olet*", Montaigne-k eta Axu-
larrek bere liburuetan itzulikatzen dute bardinki.

Itzulpen horiek denak idazlari baten nortasun ta originalitate-
arentzat ez dute deusik esan nai.

Gai orretako liburuetan zillegi da, eta denok egin dute. Ala bada
gure urdazubiarrak ematen ditu Plutarco, Plauto, Martial, Antistenes,
Diógenes Laercio, Juvenal, Aristóteles, Séneca, S. Juan Crisóstomo,
San Agustín, Ovidio eta besteen gogoetak eta itzulpenak.

Dakusagun orai, *Bertran d'Etvaux* Tours-eko ark-apizpiku eta eus-

kaldun aundi areri Axularrek egiten dion *Gomendioz-ko karta*-ren zati bat:

"Ene jaun Bertran de Etxaus, Turs-ko Arzipizpiku, Franzia-ko lehenbiziko erremusinari: Ordenako aitoren seme eta Erregeren Konseillari famatuari: Nere Jaun maitea, joan zatazkit lurretik, baiña ez gogotik, ezta ez biotzetik.

"Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gertatzen oi zaicena, egin zait niri ere.

"Liburutto au da emazurtza, Posthumus, Aita hillezgero sortua.

"Baiña zu bezalaco aitaren semea, emazurtz izanagatik ere, ezin dateke gaizki.

"Eta zure prestutasunaz, ohoreaz eta aitzineco eta ondoco fama on famatuaz, nork zer erranen du?

"Nor da Escalherrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu etzaitunik? Behartu eta empletatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure echea, egon eta ibili zaren lecu guztietan beti ere izatu da Escaldunen echea, pausa lecu eta portua.

"Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrencurak, egitecoak, coaitak eta ondicoak conta.

"Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errecibi, zuhurki conseilla, kida, governa eta burutan atera. Zu izan zara eta izanen zara Escaldunen ohorea, habea, jabea, sostengua, eta cantabres fiña, naturala eta egiazcoa.

"Eta iragaiten naizela aitzina derradan utsik egin gabe. Zer ere iskiribatuco baita escaraz, ura guztia Escaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoiñez orai ere zuri presentatu bear zaitzula.

"Eta guztiz ere zure zerbitzari thipi unen trabailu erdietsico dudala: eta orduan guztiez eskerrak errendatuco derauzkizudala, Jaincoak ala nai duela.

"Zure zerbitzari thipiena eta obligatuena.—*P. de Axular.*"

Dudarik gabe euskaldun bioztuna izan zen Bertran de Etxaus, eta lehenbiziko euskal idazlari merezigarri ayendako, goyen maillako Mecenaz bat: eta naiz eldu izan zen goren gradoko karguetara, etzuen gutietsi eta ez ahantzi bere sorterrria eta izkuntza.

Zorionez badaukagu frogatzat aspaldi ayetako gutun bat berak anai bateri euskaraz egina.

Gizaseme aundi au Bayonako apizpiku egon zen Axularren denbora aundian, eta berak sustatu zuen liburua egitera, ezpazuen edizioea ere berak lagundu. Beraz aipagarri dela iduritu zait.

Goazen berriz Axularrengana eta gorrotoaz nola mintzo den dakugan: "Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar

"denean ez sentikortzea, beti bat, beti uli, lolo, malba eta bare izai-
"tea ezteustasuna da eta ez gizontasuna.

"Nola sobera aserretzea baita bekatu, hala halaber gutiegi egitea
"ezta hoben gabe, dio Santhomas-ek...

"Begiratu behar da sobera haserretetik, alde egin behar zaika
"hirari, begia eduki behar zaika kolerari eta ez, prestuki eta
"onestki bizitzea gatik bera gatik, baiña bai gorputzeko osasuna ga-
"tik ere.

"Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko hegigoak, ira-
"kidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak eta herrak arimari eta
"gorputzari egiten deraue kalte, biei senti arazitzen deraue, biak
"eritzeintu.

"Eta halatan presuna hirosak, erreak, eta haserrekorrak ez ohi
"du betaurre anitz higatzen eta ez komunzki bere umeen umerik ere
"bere ingurunean ikusten.

"Zeren bere barreneko koleraren suak eta irakinak, errai guztiak
"errutzen, elkortzen eta idortzen baiterautza. Eta hala ikusiko du-
"zu, bere egitez iauzkor eta mendekos diren presunak, baldin bere
"hala bere desiren arauaz mendekatzen ezpadira, egosten eta des-
"egiten direla.

"Eta baldin halaber mendekatzera eta eskuen odolztatzeraz ger-
"ta badakie, gero ondotik dolutuak eta atsekabeztatuak dabiltzala.
"Halako suertez ezen, nola nahi den dela, nahiz mendekaturik eta
"nahiz mendekatu gabe, nahiz bere gogoa historik eta nahiz histu
"gebe, ezta halakoentzat damurik, atsekaberik eta asaldurik baizen...

"Haserretzea eztago ez hanbat egitekoa-ren balioan nola presuna-
"ren kondizinoan. Batak antzjarik eztauenaz bertzea jauzten eta en-
"koniatzen da...

"Halatan erraiten du Platonek: presuna haserrekorrak eta kole-
"rak adimendutsu direla, eta anitz ikasteko on, ez ordea herrien
"gobernatzeko eta ez eskola edukitzeko ere. Zeren hartarakotzat pa-
"zientzia behar da, sosegu behar da eta anitzetan ere ikusia ez iku-
"si, eta aditua ere ez aditu iduri, egin behar da...

"Livio philosophoak bere diszipulu Theodosio Emperadoreari
"erraiten zion: Badakit Emperadore handia, zenbait aldiz haserre-
"tuko eta koleraan jarriko zarela. Bada, ordukotzat eman nahi deratzut
"konseillu on bat.

"Hala zarenean, ez kexa, ez leia, ez bere hala abia, iguriki apur
"bat: ez albaitzeneza deus egin, ez erran eta ez aitzina, A-B-C eta hey
"darraizten bertze letrak erran arteiño...

"Kofesa ahal zaiteke, gorputz saildua errezibi, barur, orazinotan
"egon eta duzun guztia probei eman, baiña hek guztiak *etzaizkitzu*

"*deus baltatuko*, baldin barrenean nehoi herrarik, hegigoarik, gorro-
"torik edo borondate gaixtorik *badiadukozu*.

"Eztiteke zauria senda elorria barrenean deino: ezteke bekatua
"barka borondate gaiztoak diraeino." Unaraiño Axular.

Lizunkerizko bekatuen gaitzak eta sendabideak adiarazten ditue-
larik, ahoan bilorik gabe mintzo da; gizonki: eta belarri minbera
direnei azaldu beharrean nago hitz gordin zenbeit aurkituko dituz-
tela: baiñan kontuan hartu behar da (Cervantes irakurtu duenak ba-
daki), orduko idazlarien oitura eta usantza, hori zela, ala erdaraz no-
la euskaraz, eta orai minberago baldin ba gara, ez agian obeak. Una
Axular:

"Hala erraiten da. Neron gaixto hark ere, Erromako andre pres-
"tuen erdiak desohoratuz gero eta iduri onetako mutil gazte bat ikus-
"ten zuenean, harekin ere, naturaleza bere ere narda den bezala, se-
"gituz gero, azkenean bere ama bera, zeñien sabeletik ilki baizen, de-
"mandatu zuela.

"Eta hartaraz gero, emaztea bera ere komunzki airatzen, kilikatzen
"eta gogoetan lurrera beha jartzen da. Zeren materia hunetako pilo-
"tu on batek dioen bezala. "Illa est casta quam nemo rogavit" (Ovi-
"dio). Nehork oroitu eta otoiztu eztena kasta garbi eta prestu da.

"Anitzetan hazteintu osoki oilloak bere xito guztiak, mirua ol-
"dartzu gabez. Anitz egur eder gelditzen da oyanean ekarlerik gabez.
"Irraitunik izan eztena, mandaturik edo salorik egin etzaikana, ne-
"hork ernatu, oroitu eta behartu eztena, erran ahal diteke segurki,
"bere ohorean dagoela, eztena erori eta ez limburtu. Baiña demanda-
"tuz gero, oldartuz gero, bulkatuz gero: eta gai denak gai denari, be-
"re moldean, paradan, okasinoan, denboran eta sekeretuan, nabar-
"bentziarik gabe aditzera emanaz gero, peril da, baldin xoil gogor
"ezpada, bera dadin, limbur dadin, amora dadin...

"Bada Neron-ek bere amari mandatua egin zioen eta ama ere etzen
"munduko emazterik prestuena, beraz periletan izan ziren. Eta ba da
"erraiten duenik biak karrosan ibili zirela, eta han bere jokoa joka-
"tu zutela." Unaraiño Axular.

Atsegalearen itsutasunaz mintzo dela dio:

"Nik uste dut ezen emaztetara emana den gizona, hala deino, ezin
"datekeyela ongi, eta guztiz ere, baldin ezkondua ba da. Ezkondu ga-
"be baten erortzea, behar ezten emazte batekin segitzea, ezta ongi,
"bekatu da.

"Baiña aldeaz, ezta hain miresteko munduko arauaz. Ordea ezkon-
"du batek, emazte ederra eta prestua duen batek, hura utzirik, har-
"dezala itsusi bat, begi zelar bat, ezkel bat, beteriatsu bat, finean ez-
"teus bat, eta harekin josia bezala egon dadilla.

"Erran behar da adimendua itsutu zaikala, memoria nahasi zaikala, eta borondatea behar ezten aldera itzuli zaikala. Halakoaren etxean ezta gerlarik, liskarrik eta bizitze gaixtorik baizen.

"Zeren emazte ezkondua eztu deusek ere hala giarran ukitzen *krozkan* erauzten eta ez bere tentutik eta pazientzia-tik ateratzen nola bere senarra bertzerekin diabilkola jakiteak...

"Zeren amorantea eta guztiz amorante miaua eta eskalea huntz adarra bezala da. Huntzak inguratzen du zuhaitza, besarkatzen du, edoskitzen du eta azkenean ihartzen du. Hala bada amoranteak biltzen du, larrutzen du, ariman eta gorputzean ihartzen du.

"Urrikalkizun da halakoa, eta bai amorantea-ganikako haurra ere. Zeren nola ezpaita legitimo, nola baita bastart, bort, ezkontzaz kanpoan egiña, ezin mintza diteke libreki jend-artean, ezin bururik ailtxa dezake: bere hala lehenbiziko liskarrean putaseme deitzen dute."

Atsegilearen atsegiñ berataz ezagutzaille on bat bezala mintzo da Axular zeatz-tasun eta realismo aundiaz: "Bada frogatu duten guztiek batetan eta boz batez aitortzen, erraiten eta kofesatzen dute plazer hura plazer apurra eta laburra dela, hasi deneko akabatu dela: eta are batzutan hasi gabe ere akabatzen dela. Zeren plazer hartan berean ere komunzki plazer baiño desplazer geiago edireiten baita... Haragiaren apetitua obeki hiltzen da ez usatzeaz, usatzeaz baiño.

"Zeren ez usatzeaz anzutzen da haragia, ez antsiatua eta ahantzia jartzen da.

"Baiña usatzeaz beti ernatua, iratzarria eta oroitua egoiten da."

Eta bukatzeko, ara zer dion Axularrek Aulo Gelió Erromako idazlari ospetsu arengandik harturik:

"Kontatzen du Aulo Geliok Korinto-ko herrian zela Lais zeritzan emazte eder bat, famatua, amoltsua, plazer egillea eta bere ofizioaren baliatzen ongi ziakiene.

"Egun batez bada, Demostenes philosopho handi hura emazte haren aldetik iragaiten zela, kilikatu zen, ernatu zen, limburtzen hasi zen: eta geldegin zioen Lais berari ea zenbana saltzen zen fruitua, zer balio zuen merkatalgoak.

"Eta alegerarik, ustez ezen ihizia sarean zuen, suma handi baten eskatu zeikan, borz-ehun ezkuturen baiño geyago: handiari, handiki.

"Demostenek aditu zuenean ema-mutiriaren demanda iardetsi zioen, ez uste bezala: *"Ego paenitere non tanti emo,* (Plutarco). Eztut nik urrikitzea edo urrikia horrein garastia erosten. Erran balio bezala. Badakit andrea, ezen baldin nik orai iragan baneza zurekin neure apetitu desordenatua, urriki lekidikedala bere hala. Urrikitze hura

"bada, ondoko damu hura, eztut horrein kario erosten, eta ez hargatik hanbat diru emaiten.

"Eskarnio egin ustean eskarniatua gelditu zen. Eta Demostenek hartan aditzera eman zuen, bekatuari beti ere bere ondotik urria darraikala...

"...Komunzki amodioa, (irakurtzen dugu GVERO-berrogeita bat garren kapituluan) begietarik sartzen da, handik asten eta sortzen da... Beingo behatzeak, eta are anitzetan ere iragaitzaz eta ustekabean behatzeak, arrobatzen du bihotza: edertasunari eta ibilguneari beha egoite hark, sua pizten du, aintzinatzen du eta azkenean erratzen du... Nor nai den, eta nolakoa nai den zarela, zaren handi edo ttipi, zaren debozinoz eta intenzione onez betea, finean, zaren zeure ustez harria baiño gogor ago eta urrea baiño fin ago halabaiña emazteak bere hitz leunaz, solas garaziatsuaz, ezti az eta emeaz beretakotuko zaitu, zentzutik aterako, liluratuko eta bertze aldera itzuliko zaitu".

Eta hemen bukatzen dugu Axularrekin. Naj nuke etzeraten asper-tu. Orai eska dezagun gure adiskideek argitara eman dezaten GVERO liburua leen bai leen, bere edizione berrian, denen atsegiñerako.



Ezten atzokoa

Ezten atzokoa
nere malkoa.

Bart nere gelan
sartu intzananean,
negarrez billa nindunan.
ire arpegi maiteak,
izu-ikara,
ildakoen itxura
artu ziñan.

Baña exeri adi.
Ezten atzokoa
nere malkoa.
Ik eztakin, maitea,
zein leize sakona
dan nere gogoa!

Ez zaidan galdetu.
Ailperrik uke.
Eztin iñork galdetzen
zenbat ur-tanta
ditun itxasoak
Ailperrik den
izarrak zenbat diran
kontatzen astea.
Beti zegon zeru beltzean,
arutzago,
beste bat gordea.

Illunabarra

Etzekiñat zer duan
illunabarrak.
Ezkuturen bat
gordea ba-din
laño gorrixken arrebak.

Atsaldearen negarra!
Zerua, auspez dagon
katillu-barrua,
argi-intziritan
zijoan galdua.
Ta ni, aren aurrean,
laño-lits bat naun,
beltzean urtua.

Utzion arratsari
estaltzen mundua.
Biotzak negar egiteko,
naiago din ezkutua.

Nozk daki?

Tximistak
izenpetu du ekaitza.
Trumoaia,
aren morroe oska.
Deadar egin zun:
“Itxasoa! Itxasoa!”
Ola-gizonik
zarrena,
aitz-joka ari da
malluka.
—“Itxoizu!
Aizu!... ta zu!... ta zu!”.

Arroputz

Ni,
neri,
nerekin,
neretzat,
neregatik.
Ta mundu guzia
atzetik.

Kittarra

Sei burni-ari zintzilik.
Pin!
pon!
pun!
pan!
Lau tanta belarrietan.
Istil-otsa gogoetan.
Ire kolkoa,
Udaberri den loretan.

Deia

Lendik zetorrenan deia:
Aizak, iii!...
Burua ikasketan
nastua niñan.
Aren otsa, kezketan
galdu unan.
Urrutitik berriro:
Aizak, iii!...
Etxean opor-aldiak
poza zerionan.
Udaldia, itxaso,
mendia nizkiñan.
Berriro urbillago:
Emen ni!...
Ta agertu intzanan.

Ain urruti ta ain urbil!

Ain urruti, ta ain urbil!
Au izan den gure gurpil.

Ogei urte dizkiñagu
alkarren albo lanean.
Nik, ire gose biotzean:
ik, nere egarri ixillean.

Begiratu niñan bildurrez beingoan:
ik, bestera begiratu unan.
Begiratu idanan beste bein bildurrez:
nik, jetxi nizkiñan begiak samiñez.

Ain urruti, ta ain urbil!
Ogei urte onen ixil!

Asperen bat nik. Ik: gaxo al-ago?
—Burua astun diñat. Ez diñat geiago.
Itz-egin nai unan: baña sorgin batek
alda ziñan ire itza. Aidean lañoak zeudek.

Ain urruti, ta ain urbil!
Orrek din gure biotza il!

Ekaitza

Nai aña jolas
egin den nerekin.

I, nere katu:

ni, ire xagu.

Utzi, artu,

negar, poztu;

gaur: Ator!

biar: Agur!

orain, samur:

gero, uxkur.

Gaur arte itxu
netxegonan, Mari:

ni, ire begietan;

i, besterenetan.

Biotzak dezaken maitasun guzia,

igan ustu niñan.

Ik, nere biotza

esku-artean arturik,

irri ta parre, biurritu idanan.

Ta biotz gaxoa odol-tanta gabe,

elkor utzi didan.

Itxas asarreak ur geldia astinduz,

zaldi bustiak sortzen zekin.

Aien erasoz ertzeko aitzak

apar zuriz jazten dizkin.

Ezten pakerik zelai urdiñean:

zeruak orru, tximistak aidean

zorigaitza idazten din.

Ala naun ik gezur-itzez

zoratzeraño irakin.

Maite-galdaz sortu itunan

amaika olatu nastu.

Ur-mendietan iraulka beti,

galdu niñan nere zentzu.

Ta orain itxas irakin ontan,

ez ontzi ta ez erruki,

bakar-bakarrik gelditu gaitun

burrukan, ekaitza ta ni.

Gizona

Nor aut? Nork jarri au azpikoz gora?
Zuaitz parregarri!... Bi adar tinko,
oñak lurrera. Aien gain trinko,
enborra doakik argi-auzora.

Enbor-gerri-mutur, buru-pillota,
lur-gose-ordez, egurats-billa,
(amets ta burutapen-maratilla)
ire azi-gordallu ta errota.

Ezker-eskubi, beso biak sustrai,
aizea astinduz, bizia edaten.
Zuaitz bat dirudik zerutik jaten
ipurdiz gora... Goian ote-dek jai?

Gogo-amilla

Nere baitan nabil. Gogo-enparantzan,
ezpai-ardalla det dantzan,
Ulermena det irakin:
gauzen muña nundik ote-diteken jakin.

Gezur? Egi? Izate? Uste-uts?...
Onenbeste galderaz buru-kabia
det zaputz.
Nagon! Nere begiak zer dakus?
Nigandik ate dagon mundua, noren eskuz
sartzen zait begi-ogean?
Zer kinema det, beti aldatzen barnean?
Zubi ezkutu-bitartez, oro
atxi oi-det arin: baña zer det idoro?
Nik ikuste-uste dedana,
nigandik alde, ala ote da emana?
Ala nere begiak inun eztana,
sortzen ote-dabiltz? Irudipen-uts ote dana?

Maitasun! Gorroto! Poz! Iguiña!...
Zaldi azkarrak aztal didate biotz-muiña.
Zer det adiskide? Zer, etsai?
Zerk nauka maite dedanaren ate-zai?
Nork bultzatzen dit gogoa,
iguin dezadan nere etsaiaren albo?

Ba-du pozak iturria:
Baña maiz etetzen zait aria.
Samiñak, etxe zabala:
atsegiñak herriz, oso meia du azala.

Nora noa? Adimen-zurrunbilloan,
zorabio det. Garunetan, naspil.
Ezpai... Zalantza... Ote'ka naiz murgil.
Nere egazkiña, egak ausita,
gogo-leizean zait amil.


Maitasunari gorroto

Ez adi gelditu gure atean.
Oakit aurrera. Zertarako aut,
Maitasun, biotz-eden, etxean?
Ordu onean jo dek nere atea!
Biotza zakarretara, ustel-gai,
jaurti nian. Ez egon nere zai.
Pake-lapur,
arpegi gozo, gibel txakur,
ematen dekan ezti-edena,
oñaze miñagoa sortzearren
eskeñi oi-dek,
Errruki-gabe ixurtzen dakik
beazun-eztena.

Ama bat eman idaken, argi-uts.
Ni samintzeko, erio-mende,
biurtu uan ezur eta auts.
Zertarako niñukan erri baten seme?
Onen ederrez txora-ondoren,
eten nendin zori-gabe?

Maitasun! Gorroto aut!
Eskein gezurtiz,
amaika aldiz
itxutu nauk.
Maitale eziñen egarriz
zirika niñukan, aiek irriz
utzi nenzaten minbera.
Ire aolkuz lege guziak
jaurti nizkian leizera.
Jainkoa Bera maitatzen ere,
ez didak utzi pakean.
Oben-irrikaz nere bizia
josi dek: inpernu-keizez
gal zedin nere zoria.

Zertan ago gel nere atean?
Nere burua sasi zuri dek,
urteen buruz su-gai-utsa.
Ala ere, gezurti alen!
maite gazteen eskeintza
egiten ez aiz lotsatzen.
Oa emendik, eden galgarri!
Ta kontu
nere biotzean sartu!
Berriro emen somatzen ba-aut,
madarikatu!
naiz nere bizia galdu,
nere biotza labain zorrotzez
erdi-erditik urratuz,
ilko aut nere eskuz!



*Ezkondu ezin ziteken mutilla**Itz-aurrea*

Ogei urte dira laister Lizardi'tar Xabier mundu ontatik joan zitzaigula ta orain arte ezin argitara izan dugu ezkuturik egon dan aren beste umezurtz bat. Egia Lizardi il ondoren liburutxo batean azaldu zirala "Olerki-umezurtzak" deritzatenak. Bañan beste zerbait gelditu zan illunpean, gaur eguzkitara ateratzen dugun antzerki-lan zoragarri auxe: "EZKONDU EZIN ZITEKEN MUTILLA".

Ez du komeri yaual onek lotsik iñoren aurrean agertzeko; ez da Lizardi'ren beste lanak baño urriago. Aiek bezain bikain, goitar eta jator dezute. Euskal-teatroan eredutza artu diteken antzerki-lana.

Bai izkera, asmakizun, ipui eta gaiez teatroak eskatzen ditun doaiez ongi ornitua datorkigu. Elkar-izketa egokia dizu beti, eta umore onez jositako aterakai ta ziri zorrotzak nun nai. Guzia berriz itzaldj sakon eta egi mardulez oretua.

Ez arian, par egin araziz, gizarteko utsegiteak ispilluan bezela agertzen dizkigu. Bada "*Ezkondu ezin ziteken mutilla*", irudimen utsez, gezur-antzerka tajutua izan ordez zintasan oso-osoa egia dago; erretratatu benetakoa dezute. Egilleari berari gertaturiko auzia, auto-biografia dala esanarekin aski da. Jakiña, bestela ere, gizartean sarritan jazo oi dirala antzeko gertakizunak.

Lizardi'k ain zeatz agertzen ditu bere etxekoen gora-berak; ain argi eta garbi daude argazkian bera ezik, ama, izeba, andre-gai ta senideak, ez zitzaigun bidezko aien baimenik gabe antzerkia aizatzea.

Alare oroitarazi nai dugu berak "Etxe barne bizia" deitutakoa 1933'g. "Kirikiño"-saria irabazi zuala, "*Itz-lauz*" liburuan irakurri ditekena.

Bestalde, Lizardi zanaren eriotzak, gero etorritako gudateak eta aren ondorenak giroa txartu zuten gure asmoak aurrera eraman al izateko.

Urteak aurrera joan dira ordea, ta astiak egin du leku. Aterune ontan gure "Mutilla" plazara irten ditekela derizkiogu irakurle-ikusleen atsegin eta erakusbiderako. Zeok, ziur gaude, damaturik geldituko zerate antzerkitxo au lenago ez ezagutua. Lizardi'tar Xabier poeta bezin teatrogille trebe bait-genuen. "Lafio ta Izar" eta "Bi aizpak" "*Antzerki*" aldizkarian argitaratu ziran. Goazen orain "*Ezkundu ezin ziteken mutilla*"-ri buruz azterketa labur bat egitera.

* * *

Gaiez oso gizarteko eta era bat berri eta jatorra dala lenago esan dugu. Maite-mindurik dagon mutil batetzaz diardu ipuiak. Andregaia ba-dizu, elkar maite dute, bañan mutillak ama ta senideak bere gain ditu eta eragozpen izugarri onek bere ametsa burutzea eragozten dio.

Senargaiak adiña ba-du, lanean ari da, irabazi onak ditu bañan bere bizkar dago etxe guzia. Au dezute auzi ta korapilloa eta ez makala! Geienetan gurasoak dira seme-alaben alde nekatzen diranak. Amàika buru-auste artzen dituzte aiengatik. Aotik jatena ere ateratzen dute bere aurrai ematearren. Ori egunero gertatzen dana da ta ez du infortxo arritzen.

Iñoiz, ordea, gauzak aitzitik jazo oi dira. Alegia seme edo alabak guraso ta beste senideak eutsi bear izatea. Au da "*Ezkundu ezin ziteken mutilla*"-ren gertakizuna. "Mutillak" benetan ekiten dio bere arloari. Ez du ukatzen egin-bearrak agintzen diona. Nola aztu ta utzi, alabañan, biotza arturik daukan maitasuna? Itxoiten ba-daki eta ge-roak eta asmamenak askatuko diote korapilloa.

Ez ditu Lear erregeren alabek arabera aita-ama eskergabez baztertuko. Gerok larritzen ditugu gure auziak arindu bearrean.

Maitasunaren almenak indartsuak dira korapillo gogorrenak askatzeko. Indarrez ez ba-da, antzez guzia erabakitzen da. Osaba batez baliatzen da —praile jantzian— gauzak bere alde biurtzeko; eta arrebatxoaren laguntza ere ederki datorkio. Ama gaizoa, bere kezka azki ez duala aizpa mutxurdin eta beste andre "antu-batzalle" batek —eibartarron itz polita erabilliaz—, larrituta daukate.

Beste andre musin orrek ezin ikusi bait-du begi onez gure mutilla auzora ezkondu dedin. Bere alabarentzako senartzat aukeratua bait zuan...

Gure "mutillak" —antzerkigilleak esan nai dut— jorratzen ditu ederki bi atso elizakoi ainbat masiatzale, parregarri utzirik azkenerrako.

Lenengo ekitaldian, ama-semblearen arteko auzia dala-ta kezka pean gaude. Zer gerta bear dun jakin nairik gelditzen gera. Eztabaida ain da egitazkoa, nola erabakiko dan ikusteko irrikitzen jartzen gaitu. Komerigille on baten ezaugarri dezute ori.

Bigarren ekitaldian berriz asmaketa zorrotz baten bidez ama-semblearen arteko kezka guziak aienatzen dira ta “autu-batzalle” atsoak zapuztuta isilik geldi bear.

Izan ere, osabaren jokia, praile bizardunez agerturik irritsu ta ustegabeko da. Ziri ederrak sartzen dizkie guzoi ta aren itzaldiak ler gaizto egin arazten digute. Arestian illun zegon giroa alaitzen da pozgarri biurtuaz. Andregaiak bereganatzen ditu ama ta senideak eta noški “*Ezkondu ezin ziteken mutilla*” berarekin ezkonduko da.

Praile joan zedin ez ba'zioten gure mutillari aitzekirik arkitzen, gutxiago bear ziokean ezkontzeko. Au da “tesis” orokorra Plauto, Terenzio, Molière'ren diñakoa. Aterakizuna ontzat artuko dute gazte ezkongai ta gañerakoak ere bai.

Lenbaitlen ager dedilla ba antzerki au antzez-tokian Gure jendeak txalo ta algara artean arrerarik beroena egingo diotela ziur gaude.

Lan onekin Lizardi Xabier idazle aunditzat ba-geneukan gorago igoko da aren omena. Eta ezpairik gabe iraungo du mendez-mende euskaldungoa bizi dediño. Bedi anitz urtez!

A. M. L.



Ezkondu ezin ziteken mutilla

Bi ekitaldiko antzerkia

ANTZEZ-LAGUNAK

Yon	25 urte
Begoña (Yon'en andregai)	24 "
Miren (Yon'en ama)	50 "
Martiñe (Miren'en aizpa)	55 "
Xabier (Miren'en anaia)	45 "
Arantxa (Miren'en alabatxoa)	12 "
Andre Xerapi (Martiñe'ren laguna)	55 "
Neskame bat.	
Begoña'ren ama. (Ez da agertzen).	

Garaia oraingoa.

LENENGO EKITALDIA

Antzertokia: jangela txukuna.

Lenengo agerraldia.

MIREN eta ARANTXA.

(Biak josten; alabatxoa alki txiki batean).

MIREN.—Ez al den jolasera joan bear?... Ire aizpek aspaldi utzi zioten lanari...

ARANTXA.—Ertz au bukatu artean ez beintzat... Auxe biarko ez uztea ipiñi zait emen. (Beatza bekokian jarririk).

MIREN.—(Parrez eta alaba maiteko lastanduaz). Ai nolako etxeokoa-

- dre egokia daukadan nik etxean!... (Bat-batez bendu, ta, arpegi itzalez, gora begira gelditzen da).
- ARANTXA.—(Urduri). Amatxo... negar? (Miren'ek laisterka malko bi legortuta, josten darrai, ez erantzuteko tankeraz. Arantxa jeiki, ta besoak amari lepoan ezarriaz). Zer dezu, ama? Neri esango ez?...
- MIREN.—(Ixillunea; gero bere arteko bezela). Nere aur guziek ik bezela laztanduko ba'nindute!... Iri beste ajola ba'litzazkiote nere malkoak!... (Berriro negarra legortuz).
- ARANTXA.—Zer diozu, amatxo?... Ez al zaitugu ba guziok maite?
- MIREN.—Ez zekiñat!...
- ARANTXA.—Nork laztantzen ez zaitu?
- MIREN.—Nork... nork! (Pixka batean isillik egonda). Yon'ek, maite!
- ARANTXA.—Ara berriz!... Ori da ba!... Amatxo: gizon aundia bait-da! Ja, ja, ja! Polita litzake! (Benduz) Baiño... maite gaitu, ama. Berak ere ba-daki laztantzen.
- MIREN.—(Garratz xamar). Bai. Norbait laztantzen din, noski!...
- ARANTXA.—Orra ba... Zu ez... lotsatu egiten dalako edo. Baiño... norbait... norbait... (Irriparez ta begi-kiñuka) Bai al-dakizu nor, ama?...
- MIREN.—(Kezkaz, alabari begi-begietan begiratur) Nor?
- ARANTXA.—(Arro-arro) Ni!
- MIREN.—(Arrituta) I?
- ARANTXA.—Esango dizut ,ama. (Alkia aurreratuz) Baiña! (Beatza ez-paiñetan ipiñirik).
- MIREN.—Bai, emakumea.
- ARANTXA.—Ba, lengo batean, amona ikustetik etorrita...
- MIREN.—(Garratz) Bai; amona ikustetik!...
- ARANTXA.—Zer?...
- MIREN.—Ezer ez. Jarrai zan, maite...
- ARANTXA.—Ez, ez, ez! Zergatik esan dezu: “Bai, amona ikustetik” asarre bezela?... (Miren'ek ez dio erantzuten) Eee?... Esan nai ez neri?... Nik ere ez ba zuri, orratx! (Alkia aldenduz).
- MIREN.—(Parrez) Tira, tira, pertxanta!...
- ARANTXA.—Yon amonarena joatea ez al dezu nai?...
- MIREN.—Bai, ume, bai... Naiko ez diñat ba?... Tira, esan; nere maitea aiz-ta...
- ARANTXA.—(Alkia berriro urreratur) Ba... olaxe... amona ikustetik etorri zan batean, ementxe nere aldamenean exeri, ta... oso illun zegon... Nik begi zearka begiratzen nion noizean bein, baiño bera ez zan oartu ere egiten, geldi-geldirik leiotik sartzen zan eguzkiari begira... Nere artean egiten nuan: “Zer ote du?” Ta, alako batean, non ikusten dizkiot begietan bi malko lodi-lodi!... Ua parregurea eman zidan Yon negarrez ikusteak!... Esan nion: “Eeee,

Eeee! negarrez, negarrez!" —Orduan berak xamur xamur begiratu zidan, parre egin naiez bezela malkoak legortu zitun, eta esan zidan: "Ator nigana, Arantxa". Joan nintzaion... Esku biekin burua bigun-bigunki artu, ta astiro begiratu izan ninduanean, emen-txe (bekokian) musu luze-luze bat eman zidan... Burua utzi zidanean beste bi malko zeuzkan begietan, lengoak baiño lodiagoak... Baiñan orra; aiek ez zidaten parregurarik eman. Zergatik ez nekiala ere, erruki izan nion, eta, arrezkero... Yon asko asko maite det! —Berriro exeri nintzan, eta geroxeago, itzik atera gabe, alde egin zuan. Nik ez nion ezer galdetu, ezer esango ez zidala igerri bainuan... (Ixilunea) Ama, zergatik egiten ote zuan negar Yon'ek?...

MIREN.—Ez zekiñat, maite.—(Berekiko) Biotzik ba ote du ba, Jauna?...
ARANTXA.—Zer? berriz negarrez?... Auxen da lana! Etxe ontako guziaz negarrez, ta ni bakarrrik parrez beti! Ez ba!... Oraingoan (Eskua begien aurrean jarririk) neronek ere egin bear det. —Ezin! —(Begiak beatzaz txistuz igurtzi ondoren) Jas! Ezin, onela ere!

Bigarren agerraldia.

Lengoak, MARTINE ta ANDRE XERAPI.

(Sartzerakoan, ama-atabak begiak legortzen arkitzen dituzte).

MARTINE eta XERAPI.—Arratsalde on Jainkoak dizutela...

MIREN.—Bai zuei ere.

MARTINE.—Zer da etxe ontan? Biok negarrez?...

MIREN.—Txantxetan ari giñunan.

ARANTXA.—Ni txantxetan; ama, benetan...

MARTINE.—(Miren'i) Zer den?... Betikoa?...

ARANTXA.—Yon'ek maite ez duala dio!... Zer derizkiozu, izeba?...

Laztanten ez dualako! Ja, aja, aja... Gaiñera, amona ikustera joaten dalako asarretu egin da...

MARTINE.—Amona ikustera! Ez din azal-gaizto orrek amona txarra!

A. XERAPI.—Ori esan, ori! Je, je... Erri osoak ba-daki Yon'en amona-ikusteak zer diran!...

ARANTXA.—(Oso illundurik) Zer? Zuek ere bai?...

MIREN.—Tira, maite; nexka txikiak andreen aurrean isildu egiten ditun. Baratzara joango ba'intzana...

ARANTXA.—(Asarre-xamar) Ez det txintik aterako; baiño ertz auxe bukatu bear det. (Bere alki txikia artu, ta bekoki illunez gelako txoko batean exertzen da).

MIREN.—Exeri zaitzte, exeri. (Exertzen dira).

- A. XERAPI.—Bai, enetxoa, bai... Aurrak azi itzazu orretarako.
- MARTISE.—Egia! Beren bearrrik aundiena danean, neska motz baten atzetik txoro-txoro asi ditezten!...
- A. XERAPI.—Etxekoetaz aztuta!...
- MARTISE.—Beren bearkunari astun iritzita! Ero, biotz-gabe alenak!
- MIREN.—Arren, ago isilik... Nere semeaz orrela jarduten entzuteak min egiten zidan... ama bait-naun. Gaiñera... orain arte ez den gaiztoa izan.
- MARTISE.—Bai, atera adi beti bezela bere alde.
- A. XERAPI.—Ez, ire aizpa izpidean zegon. Yon seme on bat izan den beti. Langillea, zuzena, txintxoa, neskatxik onenaren gai. (Mirengana bihurtuaz) Baiño orretxengatik da negargarria, iñoren bai-menik gabe, etxekoen iritzia eskatzeke, nolanaiko neska andre-gaitzat artzea... Ez zenioke utzi bear...
- MIREN.—Ogei ta bost urte ditu: ez natzaio ni aurrean jarriko. Gaiñera, neskatxa ona dala entzun izan det... Ori bai; arditik ez dula...
- A. XERAPI.—Ona... ona... Oso buru-ariña... Jai ta mutil-zale purukatu, ta... Tira; iñortzat gaizki jardutea ez dago ondo ta isildu egingo naiz; baiño... ez dira oso politak nik entzun ditudan gauzak... Nere alaba batetzaz olakoak esango ba'lira, kalera erteten ere lots nintzake. Bai; ez du olako akatsik nere Garbiñe'k, eta diruz ere eman genezaioke zerbait. Baiño, alaz ere, bestelako oiek maitagarriagoak beti. Bai! Mutil itsuak!...
- MIREN.—Ezin ditezke siñistu jendearen esan guziak...
- MARTISE.—E? Andregaiaren alde ere bai?...
- MIREN.—Iñoiz nere erraiña izan ditekera, eta ez diñat bere izena bezutuzen iñoren lagun izan nai. Gaiñera, ondo dakin eorrek nondik ikasi izan dedan nik neskatx orren berri.
- MARTISE.—Bai, egia den; nik ere ez diñat iñoiz orren kaltezko esanik entzun; baiño Xerapi'k diona ere aintzakotzat artu bear diñagu.
- MIREN.—Ona siñistu naiago diñat, txarra baiño.
- A. XERAPI.—Damutu lezaizuke...
- MIREN.—Ez dakit. Baiño ni atsekabetzen nauena ez da mutillak nere iritziaren gibel andregaiartzea. Oso polita da etxeko guztien atsegiñez norbere aurren ezkontzak egitea. Baiño, askotan, olako uztarrria ez da uztartuen atsegiñekoa izaten. Biotza zer dan badakit; nik ere maite izan bait-det.—(Aizpari) Ik ez den maite izan eta gauza auk ezin uler ditzazken ondo...
- A. XERAPI.—Zer zaitzu ba samiñ?...
- MIREN.—Ara: etxeari Yon'ek eusten dio. Ba-dakizu, Yon'en lanetik jan-bearrean gera ni ta bere arreatxoak. Beraz, Yon'i, eskuak utsik dakarzkian neskatxa batekin ezkontzeko, gu gatzaiola galaz-

penik aundiena; bakarrik izan ezkeru, noiz-nai ezkontze al bait-litzake. Noski, guri jaten eman-bearrari astun iritzita da... Beti isil, beti itzal, bere kezkek amari aitortu nai ez dizkiola... Ori zait samin: ama bat geiagotzat ezin artua. Andregairik duanik ere ez dit esan. Larunbata etorri, ta amona ikustea ala beste edozein maratilla dala, alde egin. Gero, etortzen danean, nere igesi dabil, andregaia nai baiño lenago utzi-bearrak niganako asarrea eragingo ba'lio bezela. Gaur, oraindik ez dakit etorria dan. Amari agur egiteko ez du ito bear aundirik izango, ez! (Isilunea) Bai; ez du aita bizi... (Isilunea) Niganako maitetasunik eza! Orixe! Besterik ez zait samin.

MARTINE.—Ai txoroa alena! Ori guziori guk esan ba'geniñan, aterako intzanan su ta gar semearen alde!...

MIREN.—Utzi nazan... (Isilunea; gero, lenagoiko esaldiari jarraituz bezela). Baiño... gu galazpen ba'gatzaio, ez du luzaroko galazpenik. Eskera erten naiago, iñorganako zor-antzean egon baiño. Nere zamari astun ba'deritzo, ez nau bizkarretik bota bear izango: neroni kenduko natzaio gaiñetik. Aske da. Ezkon bedi nai ba'du!

MARTINE.—(Andre Xerapi'ri) Jas! Ikusi al den olako emakumerik? Ez zekiñat zer egingo nioken! (Miren'i) Orixe den ba zorakeriak esateko gogo! Emen ez zion nik beti esan izan diñadana baizik: (urrango itzok geldi, sendo ta nagusiro) Yon ezin leiken ezkondu, ta ez den ezkonduko; alperrik zebillen. Ezkondu baiño aurretioko eginbearrik ba-zeukan. Astia galdu ta neskari galduarazten zion, asmo ori burutan erabili utsaz!... (Jeikiz) (Xerapi'ri) Ta goazenan; bederatiurrenerako kanpaia jo ziñen-ta.

A. XERAPI.—(Jeikiz) Goazen, bai. Berandu da.

MARTINE.—(Miren'i) Ez al ator i?...

MIREN.—Ez, lanez josita natxegon-ta; baiño ateraiño lagunduko ditutet. (Joan).

ARANTXA.—(Erteterakoan guziaz begi-zearka begiratuaz) Agur, agur... Txoko ontan bi belarri zeudela aztu zaiote oso.

Irugarren agerraldia.

ARANTXA ta YON.

YON.—(Arantxa ikusi gabe) Tira ba... Etxean nauk orratik! (Geldiune laburra) Bildur naiz ama ikusteko... Zer esan bear diot?...—Jas! Gezurretan ibilli bear, gezurrari gorroto bizia diodalarik!— Iru egun auek non igaro ditudan galdetzen ba'dit? Oraintxe zer asmatu ez dakit... Onela ezin jarraitu gentzake, adiskidea... Ta... egia esateko, berriz, ausardirik ez! Andregaia dedala: orra nere gaiztakeri guzia... Baiño ori agertuko ba'nio —nere ama eza-

- gutzen det—, gutxien gutxienez bera ta bere alabatxoak etxetik bota nai ditudala uste izango luke, biar goizerako... nere biarkunaren zama astun au lepo-gaiñetik kendu-naian nabillela... Jauna, sail onen erabaki-bidea Zugan utzia daukat: zuzendu itzazu gauzak onenetik: (Arantxa ikusiaz) Ara! Or al intzan i?... Ez den lanerako gogo makala!
- ARANTXA.—Aurki azkena!
- YON.—Ator onontz, ator... —Exeri nere aldamenean— Arantxa, galdera txiki batzuek egin bear dizkiñat; esango al didan egia?
- ARANTXA.—Bai. Ea...
- YON.—Amak esan al du nitzaz zerbait egun auetan?...
- ARANTXA.—Amak, eta izebak, eta Andre Xerapi'k ere bai...
- YON.—Orrenak ez esan. Amak eta izebak zer esan dute?
- ARANTXA.—Andregaia dezula ta ezkondu-naian zabiltzala.
- YON.—(Arranoa! Ba-dakite!)
- ARANTXA.—Zure amona-ikusteak zer diran ondo dakitela...
- YON.—(Guzia... —Obe!)
- ARANTXA.—Ezin ezkondu ziñezkela, ta ez zerala ezkonduko. Ta asmo orretan ba'zabiltza, astia galdu ta neskatxari galdu-arazi egingen diozula.
- YON.—(Oso sututa) Nork esan du ori?...
- ARANTXA.—Izebak. —Eta esan ere egin det nere artean:—“Orren zaila ote da ezkontzea, Yon'ek ez al izateko?—Zer da ba? Tira: emaztegaiak soñneko zuri apain bat bear duala... Orixe... —Baa!... Neronek ere egingo nioke!—Gero, berriz, biok elizara joan, puskatean alkarren ondoan belauniko egon, eta kito... Olako gauza zailla al-da ba ori, Yon?...
- YON.—(Irripar samiñez) Batzutan bai, Arantxa... Ta orain, oa baratzara; utzi nazan bakarrik.
- ARANTXA.—Bai, oraintxe ninjoan, ertz au bukatu bait-det. Baiño (zurikari) lengoan bezela musu bat emango ba'zenidake...
- YON.—(Parrez) Bai, eder orri. Ator... (laztantz du) Agur, Arantxa.
- ARANTXA.—Agur. (Atetik, beatza ezpainetan duala) Isilik gero! (Bijojo).

Laugarren agerraldia.

YON bakarrik.

(Batetik bestera asarre aundiz dabilela) Ezkondu ezin!... Ezkondu ez!... Astia galdu!... Astia galdu-arazi!... Ona emen ezkondu ezin diteken mutilla! Beste edozer gauzetarako Jaungoikoa bada; ezkontzeko, ez! Esan akiok amari praille joan nai dekal; ta amak eta izebak eta erriko atso guztiak esango ditek: “Oa, oa...

Jainkoa goian zegok bai, ta txoriai begiratzen dion Aitak ez ziguk guri bere laguntza ukatuko". Baiño... ezkondu? Ez dezula gutxi uste! Ni, nere biotzak aukeratutako neskatxarekin, ezkondu?... Bai zera! Ez gaur ta ez biar! Ederki eman ere! Bein ere ez! aitzen?... Ezin niteke ezkondu, ta ez naiz ezkonduko!

Boskarren agerraldia.
YON ta XABIER.

XABIER.—Bejondeikala!... Ori dek itz egitea, mutil! Ni bezela betiko mutil-zar gelditzeko asmotan beraz? (Yon lotsa lotsa eginda)—Ta? (Oso irrikari) Etorri al aiz ba? Zer dio "amonak"?

YON.—Ondo... ondo-xamar... ainbestean... Oso zarra egotea, orixe...

XABIER.—Je, je, je...

YON.—(Berekiko) Onek ere ba-zekik zerbait!

XABIER.—Zarra beraz e? Je, je, je...

YON.—(Legor) Jolaserako gogo gutxi dakarkit. Agur.

XABIER.—Tira, tira, ez asarretu! Ator, ator, basatia i berriz! Orain egun gutxi ezagutu ba'nauk ere, gertatzen zaikan guzia esan zaidakek. Zerbait ikasia nauk eta nere laguntzak, bear ba'da ez likek gaitzik egingo.—Tira, exeri gaitean alkarren ondoan, eta zigarro bana erre dezagun... (ematen dio) Ea ba... Asi adi ire biotz bigun ori ustutzen. Nor ta nolakoa dek ire andregai ori; non daukak bera, noiztik; zeintzuk asmo dituk, noizko, alkar asko-asko maite al dezute?... eta abar... eta abar... (Guzia erdiparrez. Isilunea. Yon'ek osabari bildurti begiratzen dio, aren itzak benetan artu bear dituan ez dakiala) Arrano beltza! Mutil maitati auen gibel-bildurra! Esan-miñak irrikitzen ago-ta!... (Beste itxoinaldi labur bat. Gero, jeikitza bezela eginda Tira ba; zer egingo zaio!

YON.—(Berriro exeriarazten duala) Ez, osaba. Barkatu. Benetan biotza norbaiti zabaltzeko bearrean nagokizu!...

XABIER.—Ala ere, ala ere!... Itza biurtu zaionean!...

YON.—Askotxo galdetu didazu; baiño ajolik ez ba'dizu, lenbizikotik asi gaitean...

XABIER.—Olaxe oi dek burudunen artean.

YON.—Orra ba... —Orain zazpi urte...

XABIER.—Zakurra alena! Ez dek atzoko gauza!

YON.—Uda Ondaurtz'en igarotzen nun. Nere biziera ederra zan, eguzki-urre ta amets urdiñez jantzia...

XABIER.—Emezortzi urte ituala laburrago esan eikean; baiño tira, ez zegok ain gaizki...

YON.—Ordun eta antxe ezagutu nun gaur nere emaztegai dana. Ni

baiño urte betez gazteago zan; polit-polita, apala ta burutsua. Alkarrenganako zaletasuna parrez ta jolaska aurki jaio zan. Bion lagunak guk gerok baiño lenago nabaitu zuten, noski, gure gaiñean maitasunaren egada biguña...

XABIER.—(Irrikari, arpegiz ben-ben baiño) Egada biguña!

YON.—Osaba! Asarretu egingo naiz!

XABIER.—Txist! Maitasunaren egada biguña igarri ziaten... eta?...

YON.—Eta... bakarrik uzten ginduzen. Gu ez giñan ezertaz oartzen.

Aur bi giñan, esateko, eta gauza bat bakarrik genekin: alkarrekin egotea oso atsegin zitzaigula...

XABIER.—Alkar maite-izatea dik ezbear orrek izena.

YON.—Alkarri agur egiteko garaia etorri zanean, begi aundi eder aietan bi malko ikusi nitun. Joan zan... Orra guztia: besterik ez zan izan bion artean. Ezkon-agintza zer zan ere ez bait-genekin artean, esateko...

XABIER.—(Oraingoan parrerik gabe, ta zotin bat ito eziñik) Ipui ezta!

YON.—Negu osoan urrezko oroipen ura biotzean euki nun. Etorri zan berriro uda, ta alkar billatu gendun. Baiña nik ez dakit zer gertatu zitzaidan... Lenbiziko egunetan berarekin ezin itz egin izan nun, artean lagunik etorri ez ta etxekoekin ibiltzen bait-zan. Eta itz egin eziñak buruari lan eragin zion. Iruditu zitzaidan ume eder ark ezin igaro izan zuala negu osoa, erri aundi batean, beste norbaiten maite-itzak entzun gaberik...

XABIER.—Zerk uste eragin zikan ori?

YON.—Ezerk ere ez; irudipen gaizto bat besterik ez zan; baiña eguna joan ta eguna etorri barrendu zitzaidan oso, ta egitzat jo izan nun iñungo biderik gabe irudimenak emandako uste ura... Gaiñera, gerokoak, ibilketa aren ondorenak, aurreko urtean gogora etorri ez zitzaizkidanak, bildurtu ninduten... Laiñopetik bezela erreten, nere galdera guztien erantzuna bezela, buruak beti itz bat zerakusdan: ezkondu... Ezkondu, ezkondu! Nere urteai eta nere euki-ezari begiratuta itz ori bildurgarria zitzaidan... Zenbat urte bear izango nitun ezkondu al izateko...? Orduntxe igarri nun asko maite nula: utzi-bearra erabaki nuncan: baiña orratik ere aztu al izango nula uste izan nun, bestela...! Gau illun batez Jainkoari otoi auxe egin nion: maite ez ba'nindun, itzali zezala oiñazerik gabe nere garra; maite ba'nindun ordea, bere Laguntzaren bide ezkutuen bitartez alkarganatu ta bizibidea eman zezai-gula. Arrezkero ez nion geiago jaramonik egin; iñoiz ezagutu ez ba'nu, edo beragandik irain aundi bat artu izan ba'nu bezela. Arpegia ez zun nere barrena salatzen, noski... Baiña, a!, nolako garraztasuna biotzean...?

XABIER.—Siñisten diat.

YON.—Bost urte igaro ziran. Bitartean nere biotzak ezin maite izan zun beste inor, alegiñak eginda ere... Oraintxe urte bete berriro arkitu nun neskatz ura. Agur egin zidan buruaz eta agurtzeko asmotan gelditu nintzan berarekin, lagunak utzita. Asi giñan izketan eta uste gabe antziñako oroipenetara jo gendun. Alako batean berak galdera au egin zidan: "Eta zure asarre ura, Yon, gogoratzan al zera?" Itz auexek idiki zuten gure adiskidetasun berriaren atea... Zaletuta negon ni berari aretzaz zerbait esateko; baiño etsita negon ez nuala beinere artarako garairik izango. Luzaro itz egin genduan eta ordun igerri nun zein txoroki ta burugabe utzi izan nun bost urte lenago. Maitetasuna ez zan itzali gure biotzetan, zer egitea zegokidan? Igerri nun garai artan biotza agertzen ez ba'nio, bizi guzian izango zitzaidala damu. Beste aldetik, ukatu egiten ba'zidan ere, ez al zan obe zerbait ziur jakin, alako zalantzan jarraitzea baiño?

XABIER.—Noski.

YON.—Nere maitetasuna aitortu ta eskeiñi nion. Poz-pozik eman zidan baietza. Orduan esan nion; onegia izan zera, ta nere biotz osoa gutxi dezu eskertzat. Gaztetasunaren erdian bizi nai ez zuan gizona sendatu dezu; baiño zure itz ori atzeratu dezakezu orain esan bear dizudana entzun ondoren: Ni, ezkondua ez naizelarik, guraso bezela naiz, guraso-orde. Nere ama alargunari ta nere arrebatxoari begiratu bearrean nago; gaiñera ez det ezer, nere lana besterik; beraz itxoin bearrean gera, Jainkoak nai izan arte. Irri-parre egin zun, eta gorriturik esan zidan: nik ere eskuak utsik dakartzizut. Zure berri ba-dakit, baiño itxoiteak ez dit ajola. Zuk beti maite izatea, auxe det aski.

XABIER.—Neskatxa maitagarria...

YON.—Orra esan jakin nai zenduna... Baiño, zer da ori, osaba? Begiak bustita dituzu...

XABIER.—Je, je... Ez dek ezer... ez dek ezer... Nik ere nere biotza izan diat, ba al dakik? Eta bat-batean, samin-eztiak zaizkidan oroipe-nak astindu dizkidak barrenean... Nik ere ba-diat nere ipuia... Irea bezin pozgarria ba'litz!... (Isilunea. Illun-illun, burua makurtuta gelditzen da).

YON.—Esan, osaba... Oso alai ta ajolagabetzat zindudan ezagutu zaitudan egun gutxi auetan... Baiño zure bizitzan ere malkoak izan dirala igertzen det orain. Esan: nik ere ikasi nai det zure berri.

XABIER.—Esango diat itz gutxitan. Neskatz bat maite izan nian nik ere: ona uan baiño ez zian dirurik. —Nik ere ez, eta —auxe aitortu bearrean nauk—, lanerako zaletasun aundirik ere ez. Dana dala, nere gurasoak aurka izan nizkikan. Nik ez nian biotzik izan. Bizitza illun ikusten nian, eta ez nian ik bezela Jainkoagan

ipiñi nere itxaropena. Gurasoen asarre biziak zapuztuta, urrutira joatea sumatu nian, guzia aztutzeko. Ameriketara joan ninduan. Neskatxa ura ezkondu uan nik bera aztu baiño lenago. —Eta maitasun ona ukatua izan zitzaidan ezker, maitasun gaiztora jo nian itsu-itsu.—Ta oso galdu niñuan. Bizierarik nastuena eraman izan diat. Aspertu naizenean, nere bizitza autsita arkitu diat betiko. Eta gaur —ai gauzak nola diran!— gaur ezkondu nintekek aberatsa nauk-eta; baiño biotza legor diat, eta gaiñera ez zioat iñola emakume on bati, nere ibilketa txarren errurik izan ez duan bati, gizon baten ondakiñik eman nai. Ni ez nauk ezkonduko. Baiño nik egin nuana egiteko zorian norbait arkitzen ba'diat, eskua luzatuko zioat, ta izango dik nere laguntza. Ik, Yon, artu nai ba'dek oso osoa izango dek; eta zorionekoa izango nauk, nere zoriona autsita ikusi arren, beste batena zuzendu al izan ba'diat...

YON.—Osaba! Biotz aundia dezu...

XABIER.—Esandakoa... Garaia deritzaikenean, nigan lagun on bat arkituko dek...

YON.—Eskerrik asko, osaba...

XABIER.—Baiño oropen negargarriok utzi ditzagun.—Ez diak esan andregai non dekan, nondik etorri aizen gaur...

YON.—Loiola ta Azkoiti bitarteko etxe batcan. Ur sendagarri batzuek daude an; ta aiek artzen aren aide batzuek. Aurten ezin joan izan da nere amonaren errira ta gure alkar-ikusteak erraztearren or gelditu da.

XABIER.—Ta amak ez al dik ezer esan?

YON.—Ez, baiño oraintxe gauza batzuek jakin ditut.

XABIER.—Ea nolakoak.

YON.—Izebak esan duanez “ni ezin ninteke ezkondu ta ez naiz ezkonduko”!

XABIER.—Ni ere ezin ezkondu niñuan... Obe bai astakeri ori siñistu ez ba'nian!

YON.—Ta bai al dakizu zer bururatu zaidan? Gaur bertan amari esan bear diot praille noala...

XABIER.—Zertarako?

YON.—Ikusiko dituzu guziak oniritzia ematen... “Zer egingo degu? Jainkoak ez gaitu goseak iltzen utziko”... Ta nik esango diet: —Zer? Ezkondu, amari ta etxekoei begiratu bearra dedala-ta, ezin ninteke ezkondu... Ezin ninteke ezkondu ez gaur ta ez biar... Baño praille joan? Oraintxe bertan, etxekoak marru gorrian utzita bada ere... Ori bai! Ta ezkontzarako deia ez al da prailletzarako deia bezin entzungarria, ain donea ez ba'da ere?

XABIER.—Ederki sumatua zegok. Ik egin zak ori, ta ikusiko diagu

zer esaten duten... Gero, utzi zaidak neri gaiñerontzekoa, izlari ona nauk-eta... Goxoak ipiñiko dizkiat emakume oiek...

YON.—Ai zazu... Ama datorrela uste det... Utzi nazazu bakarrik...

XABIER.—Bai, ama dek... Agur eta ez bildur izan. (Joan).

Seigarren agerraldia.

YON eta MIREN.

MIREN.—Emen al aiz? Arkitu nai induan. Biziera onexek aspertu eragin zidak, eta itz egin bear diagu... Ba-zekiat andregaiia de-kana ta ezkondu-naian abillena.

YON.—Ama...

MIREN.—Ba-zekiat gaiñera, ori egiteko ni ta ire arrebak gaitukala galazpen.

YON.—Baiño, ama...

MIREN.—Ez, alperrik dek; ire arreat eta ire ama ez dituk gaurtik aurrera galazpen izango... Erruki-etxera joan naiago diat orrela bizitzen jarraitu baiño...

YON.—Ama, ixo!

MIREN.—Ixo, ixo... (Negarrari emanda) Geiegi isildu nauk... Ezkondu egin nai alde? Ezkondu adi! Joango nauk ni nere umeekin...

YON.—Erotu egin al zaizu, ama?

MIREN.—Erotu, erotu!... Seme eskergabea!... Non izan aiz egun aue-tan?... Joan dan igandean eta aurrekoetan nora joan intzan? Ezer ez dakitela uste al dek? Ez baiña ik esanda, noski! Gauzak ikasi ba'dizkiat atez aruztik irakatsi bear izan zizkidatek... Baiño au bukatu dek, seme; gu gora-bera, aske aiz...

YON.—(Laztanten du) Ama, orrela itz egitera etorri ba'zera, ez dizut entzun nai... Andregaiia dedala... Bekatu al da? Ezkondu egin nai dedala? Andregaiia ezkontzeko asmoz izaten da... Baiño, nork esan dizu ezkontzearren nere bearkunaz azteko gertu nagola? Isilik egon naizela? Ba al dakizu zergatik? Zuk orixe ez uste izatearren... Bildur nintzan zuri andregaiia dedala esan utsaz, zu kaleko atean ipintzeko asmoa nula uste izango ote zendun... Ta orra! Isiltzea ez da obe izan. Orixo bera uste izan dezu... Baiño jakin zazu nik ez zaitudala orren gauza gutxitzat artu... Ezkondu nai izan ba'det, ez det bereala ezkondu nai izan; baizik Jainkoak —maitetasun garbia onesten dun Jainkoak— nai izatean baizik. Jakin zazu, nere ama izan arren, ez dezula neri esan dizkidazun gauzak esateko eskubiderik, ezta nere egiñak orrelakotzat artzeko ere. Ez bait-naiz ni zuretzat seme gaizto izan! (Exeritzen da, burua eskuetan arturik).

MIREN.—(Oso baretuta urreratzen zaio) Ez, egia da; ez diat ori esaten. Baiño zergatik aiz ba orren isilla neretzat?

YON.—Orrelakoa izan arren, azala latz xamarra izan arren, biotza ba-det. (Isilunea).

MIREN.—Bai, nik ez diat esaten gaizki egiten dekanik andregaiia izatea... baiño, etxeari begiratuta, obe uan pixka bat geiago pentatu izan ba'uan... Etxea jaso ezakean ik ezkontza on baten bitartez... Ire andregaiak arditik ez dik...

YON.—Ona da.

MIREN.—Ona, ona! Oso buru-ariña... jai ta mutil-zale purrukatua... ta, ez dakit zer geiago...

YON.—(Jaikita) Nork esan du ori?

MIREN.—Doña Xerapi'k lentxeago...

YON.—Arren! Ez zaidazu autu-batzalleen esanik aiatu! Bere alaba atsegin ez ba'zait, ez det nik errua... Ez diot ezer kentzen! Ni baiño mutil oberik izango aldu! Baiño, aotik neskaxa bat sartu nai ba'didazute, ori bai dala astia galtzea! (Isilunea).

MIREN.—Tira, tira; ez asarretu, seme. (Isilune luzeagoa).

YON.—(Orain artekoa egia; emendik aurrerakoa gezurra) Ama!

MIREN.—Esan...

YON.—Arritu egingo zera baiño. Esateko bildur naiz!

MIREN.—Zer dek, zer dek? (Urduri) Esan guzia. Ama nauk.

YON.—(Begiak lurrera dituala) Jainkoak beste bide batetik deitzen nau...

MIREN.—Zer esan nai dek?...

YON.—Praille noa.

MIREN.—Eeee?...

YON.—Bai, ama. Jainkoaren deia entzun det. Egun batetik bestera aldatu naiz, baiño bene-benetan aldatu gero... Auxe esateko asmoz itxoin dizut emen, baiño asi zera izketan zerori ta erantzun gabe ezin egon izan naiz—Barkatu itz zakarregiak esan ba'dizkizut; Jainkoaren mirabeai dagokien apaltasuna ikasi bearrean nago oraindik...

MIREN.—(Zapia begietara). Jaungoiko aundia!... Praille! Nork uste zezakean! Egin bedi zure borondatea!... Goian zaude ta ikusten gaituzu; ez diguzu zure laguntza ukatuko!...

Zazpigarren agerraldia.

Lengoak, MARTINE ta ANDRE XERAPI.

MARTINE.—(Begi-zearka bere illobari begiratu ondoren) Zer degu?

MIREN.—Berri audiak (Zotinka) Yon, zerurako degu!

MARTINE.—Zer, zer, zer?

A. XERAPI.—Ea, ea, ea?

MIREN.—Praille dijoa...

MARTISE.—Ezin liteke! Ai ori egia ba'litz! Ai zer zoriona beretzat eta orrelako semeak izan lezazken amarentzat! Yon, egia al da? YON.—Bai, izeba; Jainkoaren deiari ezin entzungor egin.

MARTISE.—Bedeinkatua izan bedi zure izena, Jauna (Zapia begietara).

A. XERAPI.—(Auxe bai ez nuala nik uste!)

MARTISE.—Miren, ez larritu! Etxeko euskarria dijoakizula! Zer ajola zaizu! Goian dago guzian Aita, Berak, orain arte bezela, orain arte baño geiago lagunduko dizu.

MIREN.—Bai; ba-zekiñat.

A. XERAPI.—(Ederrak eman dizkit mutillak!) Baiño... olako bat-batean, Yon!

MARTISE.—Utzi! Jainkoak usterik gutxienean jotzen du biotzeko atea. Askotan, munduko ametsetan eta bekatu-biderik larrienetan sartuenak gaudenean...

YON.—Alaxe da!

MARTISE.—Orain egin bear dezuna biar bertan Loiola'ra joan gogo-jardunak egitera... Gogoa oroipen eta amets txarrez garbitu ta zure deia sendotu.

YON.—(Arranoa! (Oso pozik) Auxe ez nun uste! Zortzi eguneko oporra!)

MIREN.—Bai, Loiola'ra oa... Zer dek? Pozik al ago?

MARTISE.—Egon ez?

YON.—Bai, etxeko laztan oiek. Pozak zoratzen nago! (Andregaiarekin gogo-jardunak egitera! A zer nolako egun ederrak bota bear ditudan!)

Zortzigarren agerraldia.

Lengoak, XABIER ta ARANTXA.

XABIER.—Arratsalde on guziori! Emen nator, Arantxa'kin naikoa jolas egin ondoren...

MARTISE.—Atoz ea, atoz ea, Xabier! Ez dakik Yon! Poztu adi!

XABIER.—Zer? Ezkondu egiten dala?

MARTISE.—Ixo! Zer ezkondu ta zer...

XABIER.—Ezkondu ezin ditekela... ta ezkonduko ez dala...

MARTISE.—Praille dijoala...

XABIER.—Ara!

ARANTXA.—Eeee?

MARTISE.—Biar bertan dijoa Loiola'ra, zortzi eguneko gogo-jardunak egitera.

XABIER.—Ee? Loiola'ra?... (Ai! ez ago i azal txarra!)

(Arantxa negarrez asten da).

MIREN.—Zer den, Arantxa? (Lasterka Arantxa Yon'engana dioa; onek esku batez burua artzen dio).

ARANTXA.—Ez dedala nai Yon praille joatea... Ez praille joan, Yon. Nik ez det nai, Yon. Ezkondu zaitte!

XABIER.—Besoak gurutzeturik eta parrez. Berekiko) Ori dek mutillaren alderdia! Andregaiarekin gogo-jardunak egitera!

O I A L A

* * *

BIGARREN EKITALDIA

Antzeztokia: Zelai bat, zuaitz-gerizpean. Ikusleen aurrez aurre, urrutian, Loiola'ko Etxe Donearen atzea. Mai bat eta zumezko alkiak.

Lenbiziko agerraldia.

YON ta BEGOISA. Begoña'ren ama barrendik.

(Euna jasotzerakoan antzeztokia utsik. Gero, neskatz-algara garbi bat entzuten dalarik, biak agertuko dira, aurrez aurre, alkarri eskutik elduta. Sartzerakoan mutillak neskatzari gelditu-erazi egiten dio, eskuak askatu gabe).

YON.—Nolako ederki ibilli geran, eee, maite?

BEGOISA.—Aur bi bezin alai.

YON.—Jolasean, lasterketan, masusta-jaten..., guztia zeru eder onen azpian...

BEGOISA.—Beti ume-ustetan iraun al ba'genezake, ez da ala?

YON.—(Zerbait benduaz) Bai, egia diozu: gere buruari beti ume iritzi al ba'genezakio! Ordubeteko umetasun-ondorean, ordea, egun osoko, aste beteko kezka... umeak ez gerala adieraziaz.

AMA.—(Agertu gabe, deadarka) Eee, gazteak! Non zerate?...

BEGOISA.—(Eskuak aguro-aguro askatu, ta, alki batean exeriaz, len maian utzitako langaiak artzen dituala) Ementxe, ama; lengo tokian bertan...

YON.—(Parrez) Ementxe, lan ta lan...

AMAK.—(Beti barrendik) Tira, ba; zintzo egon, iñora alde gabe.

BEGOISA.—Bai, ama.

YON.—Alare! Gure igesaldiaz ez da oartu.

(Begoña josten ariko da. Mutilla aldameneko alkian exeri bezakio. Isilune luze-xamarra, noizean bein alkarri begiratzen diotela).

BEGOISA.—Yon, gaur azkenengo eguna...

YON.—Bai...; azkenengo eguna!... Gezurra dirudi, e? Zortzi egun no-la joan zaizkigun... (Berriro isilunea).

BEGOISA.—Yon... Amak zer esango dizu? Egun auek non igaro dituzula esan bear diozu?...

YON.—(Mindu-antzean) Pxe! Zortzi eguneko oporraldia artzea egin det, urte osoa lanari eman ondoren... Asko al da?

BEGOISA.—Neretzat ez da asko izan.

YON.—(Berriro arpegia argituaz) Aruntz-onuntz ibilli naizela esango diot, bazterretan ditudan lagunei ikustaldi bat egiñaz... edo... beste edozer gauza! Ipuiak asmatzen mutilla naiz ba ni! (Beste isilunea. Nexka itzaltsu. Mutillak, zearkaxe bederik, begirik ez dio kentzen). Zer dezu, maite? Maizegi bezela, illun, itzaltsu... (Alai) Tira, parre egidazu; ez zaitut orrela ikusi nai.

BEGOISA.—Yon... Zergatik ez diozu zure amari guztia esaten?

YON.—Esan... Esan...! Zertarako esan? Ba-dakizu orain oraingoz, puxka batean itxoin gabe alegia, gure alkartzea ezina dala... ni seme gaiztoa ez izatekotan, beintzat...

BEGOISA.—Bai. Ta seme gaiztoa izan nai ba'zenduke zuk, ez zinduket nik senargai ontzat artuko. Itxoin-bearrik gera, egia... Baiña, ama orrela gezurpean eukitzea ere...

YON.—(Albora begira berekiko) Gaixoa! Zu bai, ba-zauzkat gezurpean... Baiña ez luzarorako. Gaur dira nere azkenengo gezurrak... Iku-siko degu zer gertatzen dan emen.

BEGOISA.—(Larri) Ez didazu erantzuten...

YON.—Ara, ba; biar bertan, etxeratzean, guziaz esango diot.

BEGOISA.—Bai? Benetan? (Pozik; bereala bat-batean berriro illundu).

YON.—Bai.

BEGOISA.—(Beldur) Ta zer esango dizu?

YON.—Zer?...

BEGOISA.—Gure alkar maitatzeari ez dio ondo iritziko...

YON.—Baiña, maite: bildur orrek noiz utziko zaitu?

BEGOISA.—Naiago bai oraintxe ba'litz...! baiña, ezin, alperrik... Aspaldi esan nizun Yon: "Atsekabe aundiak eramango dituzu zure etxean nigatik. Nerekin ezkontzerik ez dute naiko... Ni maitezana ez ote zaizu inoiz damutuko?"...

YON.—Ta, zer erantzun izan dizut nik?

BEGOISA.—Bai, zure erantzuna badakit. Baiña alaz guziaz ere, beldur naiz... beti beldur! Betirako maite ote nazu, beñere ez aspertzeko? Ez ote da gure ametsa orain urte batzuek bezela utsean urtuko?

YON.—(Esku bat bigunki artzen diola) Ez, maitea. Gaur ez naiz ume. Ezkon-agintza zer dan, ezkon-agintzak giza-legez zertara lotzen

duan badakit. Bi egin-bear ditut nik, Begoiña, biak begiragarririk. Etxeak lotzen nau: ama-alabak nere bearririk izango duten bitartean, berai zor natzaie. Baiña zuri ere zor natzaizu, egin dizudan aginduagatik. Bi bearkun ditut, eta ez bata ez bestea ezin nezake uka. Biak erabat bete ere ez. Argatik bakoitzari bere garaia gorde-bearra. Lasa zaitea, laztan ori, ezerk ez inork ez bait-nau nere itza austera beartuko. Ara, beti ala uste izan det: Jainkoak alkarbidea egokitu zigun; Jainkoak gure nai garbia begi onez dakus; Berak, asitako lan oni azken ona ipiñiko al dio. Noiz? Ez dakit, baiña... Begoiña, itxaropen bizia det: aurki, zuk uste dezun baiño tenago erabakitzea baleike.

BEGOÏÑA.—(Poz aundiz) Benetan?

YON.—Apika, bai.

BEGOÏÑA.—Jainkoak nai beza.

YON.—Esan dizudan guztia nere gizatasunak agintzen didana da. Baiña, biotzak agintzen didana esango ba'nizuke!

BEGOÏÑA.—(Otoi-maitekor) Esan ba esan, esan...

YON.—(Parre-antzean, maitero) Inor zu besterik ez dedala maite izan, gazte-gaztetandik nigan zauzkat-eta... Maitetasuna zer dan ez nekian garaian zure begietan ikasi nuela; ta ura ikaste gozoa!... Nere itza autsi nai izan ezker ere...

BEGOÏÑA.—(Len bezela) Zer, Yon, zer?

YON.—Ezin autsiko nukela, bizi osoa zugan ipiñia naiz-ta...

BEGOÏÑA.—Eskerririk asko, Yon. Barrena argiz ta itxaroz bete didazu itz oiek bide dirala. Zintzoa zera. Barkatu, askotan nere heldurrok agertzen ba'dizkizut. Barrenak ematen dizkit nik nai ez arren; eta maiz esan badizkizut, maizago euki izan ditut izkuntuan, bakarrik negar egiñaz.

YON.—Gajoa! Baiña oraingoan siñisten didazu, ez da?...

BEGOÏÑA.—Bai!

YON.—Bete-betean?

BEGOÏÑA.—Bete-betean!

YON.—(Parrez) Noiz arte?

BEGOÏÑA.—A!, ori... (Parrez) Buru gaizto ontan zalantza berritu arte. Bear bada, ordulaurden bat barru!

YON.—(Bat-batean jaiki, ta eskuak txamarreko sakeletan erabilli bitza, zerbaiten billa balebil bezela; erabat, begi-zearka, ikusleen ezker-alderuntz urrutia aztertu beza). (Berekiko) Laurak orain-ixe. Or bidean jendea agiri da. Berak dira!

BEGOÏÑA.—Zeren billa zabiltza ordea? Jas! Asmatu baietz; tabakoa etxean aztu...

YON.—Alaxe da, ba... Itxoin zadazu emen. Bereala nator. (Bijoa, urduri samar eskuitik, aldian bein ezkerretara begituaz).

BEGOÏNA.—Ai, ai, ai! Orixe ezin utzi, beñipejn: ni laga najago...
Aguro etorri, e?... (Puskatean neskatxa bakarrik gelditzen da,
bere joste-lanari ekinaz).

Bigarren agerraldia.

BEGOÏNA, XABIER, ARANTXA.

XABIER.—(Arantxa eskutik duala agertzen da, ezker aldetik) (Buru-
koa kenduaz) Arratsalde on, neskatx eder ori...

BEGOÏNA.—Bai zuei ere.

XABIER.—Gezurra dirudi zu bezelako aingerua bakarrik egotea. Ez
al dezu laguntzallerik?

BEGOÏNA (Parrez) Banun orain artexe, baiña utzi egin nau.

XABIER.—(Berekiko) Auxe da Yon'en andregaiia, iñundik ere... Ori
dek azala! Olako puxka goxoa billatu ark, trapu alenak, begiak
lurretik jasotzeko gauza ez dirudienarren!

(Bitartean, Begoiña'k eta Arantxa'k alkarri begiratu ta irriparre
egiten diote, aurrenengo ikusian batak bestea atsegin balute be-
zela).

BEGOÏNA.—Alabatxoa dezu nexka polit au?

XABIER.—Naiago bai! Baiña ez, illoba det... Atsegin zaizu?

BEGOÏNA.—Bai. Lagun onak egingo giñake, noski, pixkatean alka-
rrekin egon ezkeru.

XABIER.—Benetan? Orduan zeure zaitzapean uzten det. Jatekorik zer-
bait eskatu diteke, noski, emen...

BEGOÏNA.—Bai, bai. Etxekoandreari deitzea nai al dezu?

XABIER.—Baita ederki eman ere! Ez iñola, eder: eskerrik asko. Ba-
noa neroni: jatekorik eskatuz gaiñera, badet beste zeregintxo bat...
Mendi oietan, nekauste edo penitentzi gogorrean dabillen praille
donetsu bat billatu nai nuke.

BEGOÏNA (Arrituta) Ara berriz! Praille bat diozu?

XABIER.—Ezagutzen al dezu, ala?

BEGOÏNA.—Ez nik beintzat emen praillerik...

XABIER.—(Berekiko) Praille ona zegon ik ezagutzen denana! (Be-
goiña'ri) Arritzekoa da beñere ez ikusia..... Baiña, "Ugats-Itu-
rri"ko urak artzera etorria omen da-ta, ezin urruti izan.

BEGOÏNA.—Ezin diteke...

XABIER.—Ezin ditekela?... Ikusiko dezu nolako aguro billatzen de-
dan nik. Gaztetan oso aiskide izanak gaituzu, ta urte askotan al-
kar ikusigabeak geran arren, duro bat egingo nuke gure txiki-
tako txistu-deia ez zaiola aztu... Agur, ba, neskatx atsegin ori:
gero arte. (Burua makurtuaz, begirune aundiz) Gaurgeroz nigan
mirabe apal bat dezu...

BEGOINA.—(Parrez, ta berak ere burua agurka makurtuaz) Eskerrik asko, zalduna.

XABIER.—Zu, Arantxa, ementxe gelditu zaite neskatx on orrekin, guzientzat txokolatea eskatzera noan bitartean... Ama-ta ere aurki dituzu emen, onezkerok. (Berriro Begoiña'ri agurka) Agur!

Irugarren agerraldia.

BEGOINA ta ARANTXA.

BEGOINA.—(Arantxa'ri maitero begira-ondoren) Musu txiki bat eman-go al didazu, polit orrek...

ARANTXA.—Musu txikia ez, bai ordea aundi-aundia...

BEGOINA.—(Parrez laztantzen du) Zergatik, ba, aundia?

ARANTXA.—Ama Birjiña dirudizulako...

BEGOINA.—Ja, ja, ja! ori ateraldia! Ta zuk (berriro laztantzen du-la) zeruko aingerutxo... Tira, nere aldamenean exeri. Josten ba al dakizu?

ARANTXA.—Ala, ala...

BEGOINA.—Ederki... Ta, egun askotarako etorri al zera?...

ARANTXA.—Ez: bagoaz bereala.

BEGOINA.—Oooo!... Ain ederki ibilliko giñanak!

ARANTXA.—Loiola'n izan gera. Zuk ez dakizu, baiña nere anai batek praille joan nai du... Nik, herriz, ez det nai joatea...

BEGOINA.—(Parrez) Ez?

ARANTXA.—Ez. Nik ezkontzea nai nuke (ben-ben). Praille joan ez-kero geiago ez bait-nuke ikusiko! Gaiñera jantzi aiekin..., oso itsusi emango lioke... Ezkonduko balitz, berriz, zu bezelakoxe batekin edo...

BEGOINA.—Ja, ja, ja! (Berriro nexka laztantzen dula) Oiek burutal-diak! Ta berak, anai orrek, zuri jaramonik gabe, praille nai, e? Ez al da, gero, beltza?

ARANTXA.—Ez; ez da beltza. Ez beltza ta ez gaiztoa... Amak Loiola'ra bialdu zun zortzi eguneko jardunak giterak, eta, uste gabeen poz ori eman dezaiogun, osabak esan digu: "Goazen Loiola'ra muti-lla gerekin ekarriz". Baiña Loiola'ra joan ta anaia billatu ez, egin degu...

BEGOINA.—Lentxeago ertena, onenean...

ARANTXA.—Orixe esan det nik ere; ta Azpeiti'n bereala arkituko genduala... Osabak ordea, emen, uretze ontan txokolatea artu gabe ez ginjoazela-ta, toki ederra dala-ta, guetako iñork ez gen-dula ezagutzen-ta... alaxe ekarri gaitu. Baiña, orra, ama ta non datozkigun. (Jaiki ta bere billa joanik, ezker aldera).

Laugarren agerraldia.

Lengoak, MIREN, MARTINE ta ANDRE XERAPI.

(Sartzen dira Xabier sartutako aldetik).

MIREN.—Bakarrik al ago, Arantxa? Non da osaba Xabier?...

ARANTXA.—Osaba etxe ortara joan da txokolatea ekarraraztera...

Baiño ez nago bakarrik... (Begoïña'gana joanaz: au jaiki egiten da ta Arantxa'k eskutik elduta amari ta gaiñerontzekoai aurkezten die). Ikusten, Ama? Ama Birjiña dirudin andre au det lagun... Oso ona da... eskua eman zaiozu.

MARTINE.—Ara! Onetxek bai lagunak azkar egin non-nai (Parrez).

MIREN.—(Begoïña'ri eskua luzatuz) Nola zaude?

BEGOÏÑA.—Ondo ta zu?

(Besteai ere eskua ematen die).

A. XERAPI.—(Izeari) (Neskatx egokia!) (Izear buruaz baietz).

MIREN.—Ongi. Eskerrik asko. Zoratu araziko zizun onezkero berritsu onek...

BEGOÏÑA.—Ez orixe. Oso atsegin egon gera alkarrekin, ez da ala?

ARANTXA.—Bai ni beintzat!

BEGOÏÑA.—Baiña ez al dezute exeri nai?

A. XERAPI.—Bai, bai; exeri gaitean... Ni neka neka eginda nago beinipein.

MIREN.—Bai ni ere. Loiola emendik bazter dagola dirudi, baiño...

MARTINE.—Ibilli egin bear da, ibilli... (Banaka banaka exeri dira).

BEGOÏÑA.—Onenean oiturarik ez, berriz...

MIREN.—Nik ez beintzat: aur asko ditut eta etxean beti da lana... Auek zerbait geixego ibiltzen dira...

MARTINE.—Bai, bai... zerbait geixego... Etxetik elizara, elizatik zuenera batzuetan, eta zuenetik gurera... ta kito.

(Isi'unea).

MARTINE.—(Berezi A. Xerapi'ri) (Neskatx atsegiña, apala, langillea ta izarra baiño ederragoa benetan, e?)

A. XERAPI.—(Alaxen da... Nongoa ote da?...)

MARTINE.—Emengoa al zera? ta barkatu...

BEGOÏÑA.—Ez... illabete igarotzen nago toki onetan...

MIREN.—Gaixorik ala?...

BEGOÏÑA.—Ez, ez! Osasun ona det Jainkoari eskerrak... Baiño ama ibilli zaigu makal xamar eta emengo urak artzera bialdu du osagilleak... Nik lagundu egin diot...

A. XERAPI.—Orretazkero ez zera ezkondua...

BEGOÏÑA.—(Zerbat lotsaturik) Ez... ez... Oraindik ez...

ARANTXA.—Baiño ez zera monja joango, e?...

- BEGOISA.—Ja, ja, ja... Zuk nai ez ba'dezu, ez.
- ARANTXA.—Ez det nai ba! Ezkon zaite... Monja sartzeko ederregia zera...
- BEGOISA.—Ja, ja, ja...
- MARTISE.—Tira, tira Arantxa. Ixo. (Asarre samar) (Begoïña asarrean ikusita, bat-batean bendu egiten da) Zer dakin ik gauza oietaz?...
- A. XERAPI.—Umeak beti ume!
- BEGOISA.—(Buruan Arantxa'ri maite egiñaz) Gaixoa!
- MIREN.—Lanean egoki ari zera...
- BEGOISA.—Egoki edo... Al dan bezela...
- MARTISE.—Galtzerdiak saretzen? (errepasatzen?)
- BEGOISA.—Bai, auek ere urratu egiten dira-ta...
- MIREN.—Urratu! Esaidazu neri! Asteero otarrakada bat izaten det nik... Inoiz ezkontzen ba'zera ta Jainkoak aur asko ematen ba'dizkizu, gogoratuko zaizu esaten dizudana...
- BEGOISA.—Siniñsten dizut bai.
- MARTISE.—Aspertuko zera ba emen... jende asko ez ba'dago beintzat...
- BEGOISA.—Ama ta biok, eta beste lau emakume ta mutil besterik ez gaude... jende gutxi izaten da emen; baiño zenbat eta gutxiago obe... Nik naiago det beintzat... Erri aundietako iztilluen aldean bestelakorik da emengo pakea...
- A. XERAPI.—Arritzekoa da! Oraingo neskatxak ez dira beintzat zu bezelakoak. Geienak, onara ekarri ta amabost egun igaroazi ezkerro, soiñurik gabe, dantzarik gabe, jairik eta parrandarik eta mutillik gabe, txoria kaiolan bezela il egingo zitzaizkizute... Ta alaz ere ezkongai!
- BEGOISA.—Ez det ezkontzeko presarik...
- A. XERAPI.—Ongi da. Baiño, orren zintzoa ez ba'ziñake, beste zenbait bezelako jai ta mutillak purrukatuen bat izan ba'ziña, senargaiak mordoka izana izango ziñan eta ezkontzez aspertua... Ai, mutillak, mutillak!...
- BEGOISA.—Ba, ale bat ona obe mordo txarra baiño!
- MIREN.—Egia!
- A. XERAPI.—Zera! Nere Garbiñe'ri gertatzen zaiona berbera! Ezin ohea ta ala ere neska bargasta ohea edozein mutillentzat!
- MARTISE.—Baiño, aizan, gauzok orrela dirala, ba al-dakin txokolate ori ez dala berealakoan ekartzekoa? Gure Xabier, bera ari ote da egiten?...
- BEGOISA.—Emen gauza oiek ez dira gertu egoten, eta orregatik pixka bat itxoin bearra izaten da... Bertara joan da sukaldekoak astinduko ditut pixka bat.
- MIREN.—Ez, ez. Egon zaite.

BEGOÏÑA.—(Jaikita) Ara; emen dator... (Neskame bat host txokolatekin).

NESKAMEA.—Arratsalde on! Berandutxo?

MARTINE.—Ez, ez! Bai zera!

NESKAMEA.—Sua kaxkar samarra dabilkigu-ta... (Bakoitzari aurrean ipintzen dio. Begoïña'ri ere bai) Berorri ere ipintzeko esan dit emendik joan dan jaunak. Berak ez duala bear...

BEGOÏÑA.—Ara berriz.

MIREN.—Bai, bai; ez genduke besterik bear... Gu jaten eta zu begira. Tira artu, etxekoa baziña bezelaxe!

BEGOÏÑA.—Eskerrik asko ba... (Berekiko) (Ta Yon ez da geiago azaldu! Jende berra sumatuta izutu egin da nonbait. Onezkero emen gelditu bear ba!).

MARTINE.—Baiño zer billatu duala gure Xabier'ek onen luzaroan ez azaltzeko?—Neskameari eder iritzi ez ba'zion! Um!

BEGOÏÑA.—Arantxa'kin etorri dan zaldunatzaz ari al zerate?

MIREN.—Bai...

BEGOÏÑA.—Praille baten billa dabilela esan du, ta mendi-mendian ezkutatuta ba'dago ere, arkitu bear duala...

A. XERAPI.—Praillea, bai! Ez dakit nolako praillea...

MIREN.—Arren, Andre Xerapi, lelo orretaz ez jardun... A! nere mutil ori, nere mutil ori!... Galduko zait! Zer egin ote du?

MARTINE.—Ago ixilik! Azpeiti'n izango den; edo bear bada, etxean onezkero...

MIREN.—Ez dakit, ez dakit! Gogo-jardunak egin ote ditu?

MARTINE.—Egingo ez zizkiñan ba?

MIREN.—Aundia den ba jesuitek aren izenaren berri ez jakitea...

MARTINE.—Askio izaten bait-ditun... Baiño ire semeak praille joan bear duala esan duanean, —berak esan zuan bezela gaiñera, —negarrak erten bear zionan— eta, benetan joango den...

A. XERAPI.—(Um! Ezzzekiñat ba...!)

ARANTXA.—Oi! Begira, ama; praille bizarraundi bat!

BEGOÏÑA.—Ara! Egia zan!...

MARTINE.—Gure Xabier'en laguna...

MIREN.—Ta Xabier ez dator berekin...

A. XERAPI.—Gizajoa! Orixe bai dagola il baiño len zeruaren erdian!

MARTINE.—Bai, emakumea! Orixe arpegikera... Ori gorputz mea... Ez da gu bezin bigun bizi errukarria...

MIREN.—Emen degu... Jaiki gaitean...

Boskarren agerraldia.

Lengoak eta XABIER.

- XABIER.—(Praille jantzian, apal-apal, begiak lurretik jaso gabe) Jainkoaren pakea zuekin.
- BATZUK.—(Guziak jeikita artzen dute; batzuek gerriko lokarriari mun egiteko asmoz) Ongi etorria, aba agurgarri ori...
- XABIER.—(Mun egin nai diotenak aldenduazita) Ez, ez... Ez naiz ni zuen ezpafiñak nere jantzietan artzeko diña... Pekatari aundi bat naiz... Exeri guziok.—Neregatik, lurreko ar ziztrin onengatik, ez zenuten jaiki bear...
(Exertzen dira; praillea ere bai).
- MARTISE.—(A. Xerapi'ri) (Santu izugarrien bat diñagu auxe).
- A. XERAPI.—(Oinetatik burura din ezagun).
- MIREN.—Aba, gurekin txokolatea artu nai al dezu?
- XABIER.—Goikoak sariztu bezaizu zure ongina ori! Baiño barkatu; ezin artu nezake...
- MARTISE.—(Ori barau latza!)
- XABIER.—...biotzerrea egiten dit-eta...
- MARTISE.—Aaaa!
- XABIER.—Bai; or sukaldean eskatu ditut neretzako uskeri batzuek... Urdaileri nabil, eta edozer gauzak ez dit onik egiten...
- MIREN.—Jakiña!
- XABIER.—Gero, andre begiragarri ori, ba-dakizu argalak gerana, eta... jan egin bear!
- MIREN.—Noski.
- XABIER.—Aragi ta ezurrezkoak gera, gorputz ustelkor au gerekin dakarkigu... (ta sukalderontz begira) A! Ba-dator! alare! (Neskamea sartzen da Iruñia'ko txistor ta Errijoja'ko ardoaz) Eta nion beze-la, aberea gerekin degun bitartean... (mokau bat artuaz) jan egin bear...
- A. XERAPI.—(Opil erdia sartu din erabat!...)
- MARTISE.—(Ixo... Goseak iltzen zegon errukarria-ta!)
- XABIER.—Gauza lotsagarria! Ai jan gabe bizi al ba'giña, gogoari, animari, gure bizi guzia emanaz!
- A. XERAPI.—(Dotriña orixe ez zait ba oso atsegin).
- XABIER.—Baiño gauza auen bitartez Jainkoak gure txikitasuna beti begien aurrean jarri nai izan digu apaltasunean bizi gaitezen...
- MIREN.—Jateko bearra ba-zendun, Aba!
- XABIER.—Bai, lotsagarria dan ezkeru, aitortu dezadan guzion aurrean: gose naiz... Zein argalak geran! Aste bete jan gabe igarotzea aski degu gosea nabaitzeko...
- MARTISE.—Jaungoiko aundia! Aste bete?...
- A. XERAPI.—Erraxago gosetzen gera gu...
- XABIER.—Bai, aste betean egon naiz mendian, zerura begira, noizean

bein sasi ta larretan nere gorputz pekatariari igortzialdi bat emanaz...

MARTINE.—Ene ba!

XABIER.—Goizero, emengo usaidun iturriraiño etorri naiz bertoko urari zurrutada bat egiñaz; nagusiek agindu bait-didate nere osauson autsia zaitzera onara etortzeko. Gero, ez det esango egun osoa jan gabe igarotzen dedanik, ez bait-da egia. Baiño nere janari guztia masustak izan dira. (Guziak alkarri begiratu, ikararuta). Lau masusta gosaltzeko. Bazkaltzeko eskua bete. Aparitan amar amabi bat...

A. XERAPI.—Aitaren eta Semearen!...

XABIER.—Igandetan, arratsalde erdian beste masusta mordoska bat, Jainkoaren eguna jaitzearren.

MARTINE.—Ia siñistu ere ezin diteke.

MIREN.—Gizonak orrenbeste bizi al izatea!

XABIER.—Baiño, makala naiz, ta astean bein garai ontan onara jexti-bearra izaten det nere indarrak gauza bizigarriagoaz sendotzera...

MARTINE.—Ez da arritzekoa, Aba! Ez da arritzekoa!!...

XABIER.—(Ontzi bat ardoz bete, ta jasota, begiratu) Au gauza ederra!... Au ere eman zigun ba Jainkoak... Gora dezagun Jauna bere emaitzetan!... (Zurrutada batean usti).

MARTINE.—Eta alaz ere, aba donetsu ori, zoriontsu biziko zera...

XABIER.—Bai, ene alaba, bai; zorion-utsetan bizi naiz. Ba al-dakizufezergatik? Oso erraxa da: Goikoaren deia entzun eta itsu-itsuan jarraitu izan natzaiolako berari!... Eta onetzaz bai daudela oker, asko ta asko munduan... Zenbat eta zenbat ez dira galdu Goikoaren deiari jaramonik egin ez, edo etxeokoe galazi izan ziotelako... Gai onezaz zuen gogoak argitu nai nituzke, ain ederki egokitu zaigun ezker, kristau maiteak...

MARTINE.—Begirune osoaz entzuten dizugu...

XABIER.—Baiño, ongi asteko, Goikoa bedeinkatu dezagun berriz. (Beste baso bat).

A. XERAPI.—(Iturriko ur usaidunak ez dio egarria oso il).

XABIER.—(Berriz sukaldarontz begira) Baiño! Tira orratik! Emen da! (Neskamea tortilla aundi bat dakarrela).

A. XERAPI.—(Aiskidea! Ez zaizkizu oraintxe zure masusta-janak gogoratzen!)

MARTINE.—(Miren'i. Bere biziko itzaldiren bat egin bear zigun; nik ez diñat itzik galduko).

BEGOISA.—(Ulertu eziñik nago praille onen berri nola orain arte jakin ez dedan).

XABIER.—(Arrautzopil puska batzuek irentsi ondoren) Asi gaitean,

Goikoa lagun degula. Ene ardi laztanak: Jaungoikoa'ren deia —vocatio, vocationis— era askotako oi da: obeki esateko: era askotakoa ez; era bitakoa bakarrik. Erlijio-bizitza ta ezkontza. Neska-mutilzar biziera ez da, nere ustez, eta Eliza Amaren gu-raso agurgarri askoren ustez, Goikoaren deia; etsaiarena baizik...

A. XERAPI.—(Bere artean, Martiñe'ri begi-zearka begiratzuz) (Ederrak eman dizkin!)

XABIER.—Baño ontan ere, berezi ditzagun emakumezkoak g'izonez-koengandik. Neskazarrak, geienetan, ez dira neskazar bere naiez gelditu, ezkondu ezin izan diralako baizik; oiek ez dute errurik, naiko lana bai ordea gaixoak...

MARTINE.—(Ala ere! Asnasa artu eziñik negoen!)

XABIER.—Gizonezkoetan berriz ba-dira mutilzar gelditu diranak ezkontzako uztarri astuna leporatu nai izan ez dutelako. Auexei dijoakie nere lenengo zigorkada. Ta azkenez, neska bai mutilzarretan ba-dago beste talde bat: ezkontzarako deia entzun eta bere etxekoen naiz bere gain aginpidedunen eragozpenez, ezkondu ez diranak; auek naiko lan izango dute zeruratzen, baño zuzengabekeriz ezkontzea galazi diotenak? A! Ez dizutet esan nai nolako inpernua izan bear duten!

MARTINE.—Ondo irabazia gaiñera!

XABIER.—Baño etorri gaiten berrero asierako itzetara. —Askok uste izaten dute, lekaidetzarako deia bakar-bakarrik izaten dala Jainkoaren deia... Oker larria auxe! Prailletzako deia bezin done-tsua, berau bezin begiragarria da ezkontzarakoa.—Berdin berd'n jartzen dira inpernura-bidean, batari naiz besteari jaramon egin ez, edo jarraitzea galazten dietenak. Zer esango dezute Jainkoak bati prailletarako deitu ta au, deiari jarraitu bearrean, ezkondu egiten ba'da...

MARTINE.—Jainkoak gorde gaitza! Ori pekatu larria!

XABIER.—Ba, ezkontzarako deia izan eta praille joaten danak ez du burugabekeri ariñagoa egiten! Ez da bestea baño errazago zeruratuko; zaillago bear bada... Baño jetxi gaiten oraindik geiago: prailletzako bidean, dei askotarikoak diran bezela, —batak jesuita nai du, besteak prantziskotar, onako onek kartujo, ta abar— eta norberari egindako deia komentu berezi batean, ez beste edozeiñetan, sartuta beteko duan bezela, alaxe gertatzen da ezkontzan ere... Ezkontzarako lenbiziko gaita, alkarrenganako maitasuna da...

BEGOISA.—(Praille onek, dana dala, egi pozgarriak esaten ditu...)

XABIER.—Nik orain jarriko dizutet adibide bat: egin zazute kontu mutil bat: Pello izena jarriko diogu...

ARANTXA.—(Isilka Begoiña'ri) (Ori izen itsusia!)

XABIER.—Errotazuri'ko Pello, Matxin Bizardo'ren Malentxo'tzaz txoratura dago; Matxin Bizardo'ren Malentxo'k berriz ez darabil Errotazuri'ko Pello beste ametsik buruan... Alkar maite dute ta alkarri ezkon-agintza egiñak dira... Ba, orra: Pello'ren deia ez da soil soilik ezkontzea; ez, enetxoak; Pello'ren deia Malentxo'kin, eta ez beste inorekin, ezkontzea da...

BEGOÏÑA.—(Su aundiz) Ederki esana!...

A. XERAPI.—(A! Orratik! Senargaia ba-din neskatxa onek! Nere Garbiñe'k ez duna).

XABIER.—Ba inork, etxeok batez ere, Pello'ri Malentxo'kin ezkontzea galerazen ba'dio, beste neska bat ezarriko zulotik sartu nairik, zer gertatzen da? Iru auetako bat: Pello mutilzar gelditu, edo beste nexka batekin ezkondu, edo praille sartu... Nola nai ere, bere bidetik kanpora bizi izan... Ta onetara beartu duanak inpernuko su guztiak ez ditu aski...!

MIREN.—Ikara naiz!

MARTINE.—(A. Xerapi'tzaz) (Iretzat ez zegon ori gaizki!)

A. XERAPI.—(Martine'tzaz) (Oiek ola ba'dira ez den ik gardostualdi makala igaro bear!)

BEGOÏÑA.—(Sotin luze bat eginda) (Praille onek egun bat Yon'en etxean egingo ba'lu!)

XABIER.—Baiño aspaldian ez genduan Jainkoa bedeinkatu. (Beste baso bat klink).

BEGOÏÑA.—Arren jarraitu, aba ona orrela.

XABIER.—Ba-noa; ba-noa. Malentxo neskatxa ona da; baiño ez du arditik. Pello'k berriz etxeari begiratu bear dio bere irabazien bidez. Eta orra non datozen etxeokak esaten: "Mutil au ezin di-teke ezkondu ta ez da ezkonduko."

MARTINE.—Edozer gauza!

XABIER.—Zergatik ez, enetxook? Jaungoiko bat ez al dago goian? Berak Pello'ri ta Malentxo'ri alkarbidea egin eta bion alkar-maitasunari eder ba'derizkio, nor da inor Pello ezkondu ezin ditakela esateko? Gaur ezin ba'du ere, ez al dio Jainkoak garaia iristen danean, bidea erraztuko?...

BEGOÏÑA.—Ori esan, ori!

XABIER.—Zuetakoren batek galdetu lezake: orretazkero, gurasoak ez al dute bein ere bere seme-alaben ezkontzen aurka jartzeko eskubiderik? Ez det orrenbeste esan. Ezkontza zearo debekatzeko ez dute eskubiderik; baiño, bai batzuetan beren seme-alabei atzeratuazten alegiñak egiteko... Noiz? Egin zazute kontu Malentxo izen eta ibilketa gaiztoko neskatxa dala... Orduan bai... Baiño Malentxo'k arditik ez izatea, ta Pello gaurkoz etxeari eutsi-bearra izateak ez diote eskubide ori ematen... Eta Malentxo ona izan arren,

dan bezela, edozein atso autubatzaliek aren izena beztu-naian ba'dator ezkontza egin ez dedin, zer merezi du orrek?... Deabruak eraman beza!

A. XERAPI.—(Martíñe'ri) (Zertan begiraten didan orrela? (Garratz).

XABIER.—Amorraiak betoz!

A. XERAPI.—Zer?...

MARTINE.—Zer?...

(Neskamea agertzen da).

XABIER.—Betoz amorraiak! Auexek ere Jainkoak egiñak... Bedeinka dezagun Bera bere goragarrietaz! Auxe jan ezkeru, ongi naiz mendian beste aste bete igarotzeko!...

A. XERAPI.—Masusta utsez?

XABIER.—Masusta utsez.

ARANTXA.—Pello ta Malentxo'ren ipuia bukatu al da?

XABIER.—Oraintxe noa, maite; aurki azkena.

BEGOÏÑA.—Esan, esan!

XABIER.—Pellok, toki guzietatik datozkion eragozpenak bide, batak ezin ezkondu ditekela", besteak "bere andregaiia nolanaiko neska dala" ta abar, etsipenari burua ematen dio ta onela dio bere artean: "etxeak nere euspina, nere irabazia bear duala? Ezkontzea debekatu? Ba-dakit zer egin. Komentu baten pakean nere egunak amaitzera joan ta kito."

MIREN.—(Jauna, Jauna. Gizon onek goiko argiz itz egiten du!)

XABIER.—Zer gertatzen da? Pello gaur bertan ezkonduko ba'litz ere, nola ala bere sendiari gutxi naiz asko laguntza ematen jarraitu lezake; praille sartuta berriz, kaixo motel: eskatu bai obeto, eman baiño... Oiek ola dirala, usteko dezute zuek bere etxeoek praille joateari galazpen biziagoa jarriko diotela ezkontzeari baiño? Ez ba; Praille joan nai dek? diote. Joan adi ba; Goikoak lagunduko gaitzik... Jainkoa arestian jaio ba'litz bezela... Ta Pello gizajoa komentuan sartu da, praille txar bat izango da, ta bertan sartuazi ziotenak Jainkoari egunen batean kontu estu-estu eman bearra izango dute!...

MIREN.—Arren, Aba! (Oso atsekabetuta jaikirik) Ez jarraitu, arren! Biar bertan ezkon bedi!

XABIER.—Zein? Ni? (Ikara aundia agertuaz).

MIREN.—Ez, zuk ez dezu ezagutzen! Nere Yon, nere Yon! Tira jaiki zuek ere! Goazen aren billa!

XABIER.—Egon, egon pakean; nik indarrak berritu arte (Baso bat eskuan duala).

BEGOÏÑA.—(Oso urduri). (Yon! Pello! Malentxo! Arantxa! Gogo-jardunak! Zortzi egun! Yon'en tabakorik eza! Zaldun aren praille adiskidea! Ene Jainkoa! Zer da au? (Arantxa'ren burua artu ta

begi-begietan begiratzen dio) Bai, bera da! Ama zerukoa! Gezur onj azken ona eman zaiozu!

Seigarren agerraldia.
Guztiak.

(Yon sartzen da ta Xabier'engana dijoa eskuan mun egiteko asmoz; Xabier'ek bere eskua eman bearrean Begoiña'rena damaio).

MIREN.—Yon! Yon! I aiz?

MARTISE.—Jaungoikoaren miraria!

YON.—Barkatu, ama! Ta barkatu zuk ere, Begoiña; baiño itsumustuan ta Gotzaiaren baimenikan gabe praille bikain au egin bearrean arkitu naiz, bestela esanda aintzakotzat artuko ez zenituen egiak esan zitzan.

MIREN.—Au! Zure andregai! Neskaxa egoki au?

YON.—Onek ez zuan zuk aña berri gezur onetzaz. Praillea ta ni bakarrrik gera errudunak!

MARTISE.—Ta praillea?...

YON.—Praillea (Bizar-jantziak kenduta) zure anai laztanada da, Xabier.

ARANTXA.—Ja, ja, ja. Txalo, txalo osabari! (Txaloka).

XABIER.—Pello ta Malentxo. —Barkatu bezait Jainkoak ez dagokidan jantziz jantzi ba'naiz, baiño jantzi aiek gabe esan ditudan egiak esan ba'nitu, ez zidan emakumeak jaramonik egingo.—Ezkon zaitzete; zuen maitetasuna gizonen txikikeriak iltzeko ederregia data: nik ere maitasun bat izan nuen eta ez jarraitzetik datorkit nere biziko zoritxar guzia. Aberatsa naiz, eta ezkondu ziñezteke, Peljo'ren bearkuna uzteko bildurrik gabe.—Luzaro bizitzeko ez naizela ere igertzen det, nere osasuna gazteegi gastatu det-eta; emendikantxe nere ondorengotzat aukeratzen zaituztet nere aberaskietan. Tira, Miren, neskaxa eder onen bekokian musu bat utzi zazu...

MIREN.—(Negarrez) Atoz, alaba! (Musu ematen dio).

ARANTXA.—Ez nuen nik esaten ezkontzea oso erraxa zana? Au poza! Txalo, txalo! Txalo Yon'i, txalo Begoiña'ri!

O I A L A

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORENDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 15 Ptas.

Suscripción anual: 40 »

EGAN: Ejemplar suelto: 4 Ptas.

Suscripción anual: 14 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 50 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales. Número suelto: 10 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo
SAN SEBASTIAN



ESCELICER, S. L.
SAN SEBASTIAN